

Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia 2020

JARRAIPEN-TXOSTENA 2019



EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia 2020

JARRAIPEN-TXOSTENA 2019



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz,
2020ko martxoa

Argitalpena:

2020ko martxo

© Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa
Osasun Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Osasun Saila

Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritza

Donostia-San Sebastián kalea 1

Tel.: 945 018 000


01010 Vitoria-Gasteiz

Edukia:

Dokumentu hau Osasun Sailak egin du, IDOM enpresaren laguntzarekin


Diseinua:

Begoña Paino Ortuzar




AURKIBIDEA

1. TXOSTEN EXEKUTIBOA/ ABSTRACT.....	11
2. TESTUINGURUA.....	21
3. ESTRATEGIAREN AURRERAPENA.....	25
3.1. ESTRATEGIAREN AURRERAPEN OROKORRA.....	25
3.2. ARDATZ BAKOITZEKO AURRERAPENA.....	28
4. ONDORIOAK.....	85
5. ERANSKINAK.....	93
1. ERANSKINA: OIBE 2020 ESTRATEGIAREN JARRAIPENEAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN ZERREDA.....	93
2. ERANSKINA: EKINTZEN ZERREDA, ARDATZEN ETA HELBURUEN ARABERA.....	93
3. ERANSKINA: METODOLOGIA.....	101
4. ERANSKINA: LANTALDEAK.....	105
5. ERANSKINA: GLOSARIOA.....	106



IRUDIEN TAULA

1. Irudia: Ekintzen aurrerapen-maila (ekintza kopurua, %)	11
2. Irudia: Ekintzen aurrerapen-maila, ardatzaren arabera	12
3. Irudia: Helburuen aurrerapen-maila (2018-2019)	13
4. Irudia: Ekintzen aurrerapen-maila, 2016-2018, 2019 (ekintza kopurua, %)	25
5. Irudia: Ardatz bakoitzeko ekintzen aurrerapen-maila, 2016-2018 aldia vs 2019 (ekintza kopurua, %)	26
6. Irudia: Aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: Eragina ardatza	29
7. Irudia: Ekintzen aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: Eragina ardatza	43
8. Irudia: Aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: Integrazioa ardatza	44
9. Irudia: Ekintzen aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: Integrazioa ardatza	58
10. Irudia: Aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: Pertsonak ardatza	59
11. Irudia: Ekintzen aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: Pertsonak ardatza	73
12. Irudia: Aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: Baliabideak ardatza	74
13. Irudia: Ekintzen aurrerapen-maila helburu partzialen arabera: Baliabideak ardatza	81



1. TXOSTEN EXEKUTIBOA / ABSTRACT



1. TXOSTEN EXEKUTIBOA / ABSTRACT

Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntza-estrategia 2020 (OIBE 2020) da EAEko sistema sanitario publikoan jardura horiek sustatzera berariaz zuzendutako lehen estrategia. Xede orokortzat du Euskal Autonomia Erkidegoan biozientzien eta osasunaren arloaren hazkundera bultzatzea, eta ikuspegitzat, berriz, 2020an EAEko sistema sanitario publikoa aintzat hartua izan dadila I+G+Bren arloan egiten dituen jarduerengatik –arlo asistentzialean gertatzen den gisara– eta gai delako jardura horien emaitzak beste alderdi batzuetara eramateko, hala nola herritarren osasuna hobetzera, sistema sanitarioaren beraren jarduna hobetzera eta aberastasuna eta enplegua beste eragile batzuekin eta enpresa-ehunarekin lankidetzan sortzera. Hori lortzeko, honela dago egituratuta: 4 ardatz, 19 helburu partzial eta 57 ekintza.


Estrategia 2016-2020 aldian egongo da indarrean, eta jarraipen- edo monitorizazio-eskema bat ezartzen du, gehi azken ebaluazio bat. Aurreikusita zegoen moduan, 2018ko erdialdean tarteko berrikuspena egin zen strategiaren hedapen-maila ezagutzeko eta I+G+B egituren maparen bilakaerari buruzko informazioa emateko.

OIBE 2020ren jarraipen-txosten honek erakusten du strategiak zenbateraino egin duen aurrera tarteko berrikuspenetik 2019ko amaierara arte.

2016ko hasieran abiarazi zenetik, strategiaren hedapenean aurrerapen handia egin dela egiaztatu da. Ekintzen ia % 95 (% 94,7) martxan dago, eta % 75 baino gehiago (75,4%) dago ezarria edo aurreratua. Tarteko berrikuspeneko (2018) emaitzekin alderatuta, nabarmen egin da aurrera ekintzen herenetan (% 33), zeinak kategoriaz aldatu baitira.

1. Irudia.


Ekintzen aurrerapen-maila (ekintza kopurua, %)



Ardatzen ikuspegitik, aurrerapausoak egin dira guztietan. Azpimarratzekoak dira, batetik, Eragina eta Integrazioa ardatzak, ezarritako ekintzen ehuneko handiagoa baitute, eta, bestetik, Integrazioa eta Pertsonak ardatzak, ehuneko handiagoa baitute aurreratutako ekintzei dagokienez. Baliabideak ardatzak ekintza batean baino ez ditu izan aldaketa nabarmenak, eta ekintza hori hasita egotera igaro da.

2. Irudia.

Ekintzen aurrerapen-maila, ardatzaren arabera



Ekintzak bere helburu partzialen arabera daude banatuta. 19 helburu partzialen aurrerapena aztertuta, errazago identifika daitezke egoera onean dauden alderdiak nahiz aldiaren amaierara arte (2020) berariaz landu behar diren alderdiak, ahalik eta helburu estrategiko gehien betetzen direla bermatzeko.

Helburu guztiei ekin zaie. Ehunekoei erreparatuta, hau da helburu partzialen aurrerapen kuantitatiboa:


- Helburuen % 10,5 ezarrita dago; zehazki, H1.4 eta H1.6 helburuak Eragina ardatzean.
- Lau ardatzetako helburuen % 68,4 aurreratuta daude. Aurreratutzat jo dira Integrazioa eta Baliabideak ardatzetako helburu guztiak.

- Hasita daude Eragina eta Pertsonak ardatzetako helburuen % 21,1; zehazki, H1.2, H1.5, H3.1 eta H3.2 helburuak.

Hobeto ikusteko, honako grafiko hauetan dago adierazita egoera:

3. Irudia.

Helburuen aurrerapen-maila (2018-2019)



Kualitatiboki, estrategiaren erdialdetik aurrera gauzatutako hedapenak indartu egin ditu lehendik indargune gisa adierazitako alderdi nagusiak, eta aurrera egin da beste batzuetan. Alderdi horietan, oro har, sistema egituratuago eta koordinatuago baten ezarpena eta funtzionamendua ikus daiteke, zeinean I+G+B jarduerak beren potentziala hobeto gara baitezakete.

Hori honela islatzen da:

- I+G+B erakundearen mapa egituratua, jarduera gehienetan irudi korporatibo, esparru eta irizpide komunak dituen.
- Jardueren sistematizazioa eta koordinazioa (adibidez: Fundanet, Lantalde –LT– eta abarren erabilera).
- Berrikuntza irekiaren kudeaketa (2016an, Baliosasun programa abiarazi zen, 2014-2015 aldirako Berrikuntzarako Ekintza Plana oinarri hartuta. Plan horrek kudeaketa-eredu korporatiboa jasotzen du, eta hor sartzen dira, besteak beste, berrikuntza-jardueren erregistroa –ez zena sistema mailan egiten– eta haien transferentzia; eta Innosasun programa sistematizatu zen).
- Aurrerapenak informazio-sistemen integrazioan eta aprobetxamenduan.
- Zeharkako lehen ikerketa-programak (ez institutu bakoitzaren planak), hirugarrenak barne (RIS3).
- I+Gko inbertsioa handitzea eta ikusaraztea.

Begirada zehatzago batek indartu edo hobetu beharreko indargune eta alderdi nagusiak identifikatzeko aukera ematen du, lau helburu estrategikoei dagokienez:

Herritarren osasuna hobetzea eta aberastasuna sortzen laguntzea xede duten I+G+b jardueren eragina handitzea

INDARGUNEAK

- Ebaluazio- eta kudeaketa-prozedurak sistematikoki erabiltzea I+G+bko zentroen sarean (kasu askotan komunak edo partekatuak; beste batzuetan, ezarpen-fasean); 2019an egindako aurrerapenen artean daude Eurosasun eta Baliosasun programetako prozedurak eguneratzea; EAEko sistema sanitario publikoaren berrikuntza-proiektuetarako *ex ante* balorazio-tresna eguneratzea (Medtech ekimena, Innosasun programa) eta EAEko Sistema Sanitario Publikoaren IKT Ekimenak Lehenesteko Matritzea eguneratzea.
- Zaintza teknologiarik eta adimen lehiakorrari sistemikoki heltzea.
- Biozientziak-osasuna eremuan bultzatutako sektore arteko lankidetzako eta lankidetzako publiko-pribatuko dinamika jarraitua RIS3 Euskadi estrategian. Hor sartzen dira arloko lidergoa (Basque Health marka), industriarekin lankidetzako areagotzea, Lantaldeek I+Gko programak eta/edo ekintza-planak elkarlanean diseinatzea, eta aldebiko ekimenak ezartzea Ikerbasque, Donostiako Sustapena, Lanbide Heziketa eta beste erakunde batzuekin.
- Innosasunetik edo antolaketa-berrikuntzako Europako proiektuetatik berrikuntzak sartzeko edo praktika klinikora eramateko prozedurak edo zirkuituak indartzea.

HOBKUNTZA-ARLOAK

- I+G+b jardueren *ex post* ebaluazioa sistematizatzea instantzia eta prozesu garrantzitsu guztietan.
- Prospektiba-gaitasuna garatzea EAEko sistema sanitario publikoaren eraldaketa elikatzeke.
- Berrikuntzako Erosketa Publikoa ezartzea EAEko osasun-zerbitzuko eguneroko jardura gisa.
- Berritasunak sartzeko, lehen erreferentzia hornitzeko eta egoera errealean ebidentzia sortzeko mekanismoak sistematizatzea. Antolaketa- eta kudeaketa-emaitzekin lotutako berrikuntzek *de facto* funtzionatzen duen zirkuitu bat dute, baina sistematizazioa behar da oraindik (ezagutzaren kudeaketa eta prozedura), alderdi horiek are beharrezkoagoak baitira produktu eta teknologia biomedikoei dagokienez.

Aurrera egitea ikerketa eta berrikuntzako jardura asistentzia- eta irakaskuntza-lanarekin integratzeko bidean

INDARGUNEAK

- I+G+b erakundeen mapa, funtzio berezituak, irizpide partekatuak eta sareko funtzionamendua dituen. Dekretu arautzailea, prestatze-bidean.
- Gero eta handiagoa da erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazioa: lankidetzako lehen ikerketa-programak (hirugarrenak barne) eta lan-batzordeen sistematika, lehentasunak ezartzea eta/edo koordinatzea; eta institutuen eta zerbitzu-erakundeen arteko interakzioa.
- 20 lantalde aktibo baino gehiago egotea (gehi bat amaituta eta bestea latentea), pertsonen araudiari buruzko bat barne.
- Informazio-sistemen erabilera homogeneoa eta/edo partekatua indartzea, I+G+b kudeaketa integraleko tresnan (Fundanet) hobekuntzak ezartzeak eta modulu berriak eskuratzeak erraztuta.

HOBKUNTZA-ARLOAK

- Azterlanak ebaluatzeke denbora gutxitzea dakarten hobekuntzak egitea Ikerketarako Etika Batzordearen (IEB) funtzionamenduan.
- HRS4R estrategia sistematizatzea ISI guztietan, ikertzaileentzat erakargarriagoak izan daitezke.

-
- Sistemen integrazioaren sistematika korporatiboa, interakzioa ez dadin landu bakarrik proiektu zehatzetan eta modu puntualean sortutako beharren arabera.
 - Jabetza intelektualaren araudia garatzea eta emaitzak ustiatzea.

Sistema sanitarioko profesionalek ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak egitea sustatzea eta pazienteen eta herritarren inplikazioan aurrerapausoak egitea

INDARGUNEAK

- I+G+b beharren (profilak eta egitura) plangintza partekatua egiten hastea, Giza Baliabideak LT berriaren aurrerapenei lotuta.
- Aurrerapen apalak egin dira zenbait gairi dagokienez: I+G+b metrika eta hura zerbitzuetako erakundeen adierazleen zati gisa erabiltzea; I+G+b jardueretan jardutea; laguntza-zerbitzuak ebaluatzea; eta herritarren inplikazioa.

HOBKUNTZA-ARLOAK

- I+G+B jardueretan aritzearekin eta hori aitortzearekin lotutako alderdien garapena.
- Ikerketako eta berrikuntzako prestakuntza-jardueren baterako koordinazioa.
- Ikerketa-egonaldien programa bateratu baten lanketa.

Osasun-arloko ikerketa eta berrikuntzaren finantzaketa hobetzea, barruko zein kanpoko baliabideak erabiliz


INDARGUNEAK

- Urteko I+G inbertsioa haztea eta Osasun Sailaren deialdia hobetzea (operatiboan eta helburuetarako orientazioan –proiektu integratuak, RIS3 interes bereziko ekintzak–).
- Ikerketa sanitarioko institutuen oinarrizko finantzaketa-mekanismoa ezartzea eta I+G inbertsioa Kontratu Programan bistaratzea (kudeaketa integratuan eta I+G+b jardueraren kalitate-eskakizunean aurrera egiteko).
- Baliosasun Funtzaren ezarpena aztertzea, sistema sanitariotik sortutako teknologia-garapeneko eta berrikuntzako (teknologikoa, antolamendukoa) proiektuak egokiago laguntzeko.
- Onkologiako saiakuntza klinikoetan pazienteak errekrutatzeke hobekuntzak egitea, Onkobide tresnako informazio berriaren bidez eta, bereziki, helduen onkologia

medikoko lankidetza-sare baten bidez, zeinak pilotu gisa balioko baitu beste eremu batzuetan.

HOBETUNTZA-ARLOAK

- Sareko ikerketa klinikoaren eredua (egitura, gobernantza, baliabideak, prozedurak), saiakuntza kliniko gehiago erakarri eta egiteko.
- Mezenasgo-plan bat diseinatu eta ezartzea.



2. **TESTUINGURUA**

2. TESTUINGURUA

Txosten honek konplimendu ematen dio Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako 2020rako Estrategia monitorizatzeko edo hari jarraipena egiteko konpromisoari. Konpromiso horren arabera, tarteko berrikuspena egin zen 2018ko erdialdean, eta, estrategiak ezartzen duen bezala, jarduketa-ildoen baliozkotasuna aztertu zen, bai eta I+G+b egituren maparen bilakaera ere. 2019ko txosten hau tarteko berrikuspenaren eta 2019ko amaieraren arteko aldiari dagokio.


Aldi horretan, sistema sanitarioan bertan, I+G+B sistema horretan integratzeko erritmoan eta ingurunearen bilakaeran izandako aldaketen ondorioz, birformulatu egin dira estrategian proposatutako jarduera-ildo batzuk. Hori da honako bi ekintza hauen kasua: *3.2.4 UPV/EHUko eskola eta fakultateekin (Ingeniaritza eta abarrekoak) eta beste unibertsitate eta erakunde batzuekin trukeak egin daitezen sustatzea, elkarren ezagutza eta jakintza-arloen arteko hurbilketa errazte aldera, eta 3.2.5 Euskal Herriko Unibertsitatearekiko lankidetzareagotzea ikerketaren eta lotutako prestakuntzaren inguruan.* Berridatzi egin dira, ulergarriagoak izateko eta haiek sisteman hedatzea errazteko: *3.2.4 Lankidetzareagotzea eta trukeak sustatzea unibertsitateekin orokorrean eta beste prestakuntza erakunde batzuekin, eta 3.2.5 Lankidetzareagotzea UPV/Euskal Herriko Unibertsitatearekin ikerketaren eta lotutako prestakuntzaren inguruan.*

Era berean, I+G+B erakundeen egituraketarekin lotutako mugarri hauek aipatu behar dira:

- EAEko sistema sanitario publikoaren espezifikoak:
 - Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua Elkartea eratu zen 2018ko azaroan, eta, beraz, nortasun juridiko propioa du, gainerako erakundeek bezala.
 - Bioaraba akreditatzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) agente gisa, ikerketa sanitarioko institutuen kategorian, 2019ko otsailean (izaera juridiko propioa eskuratu ondoren).
 - 147/2019 Dekretua, irailaren 24koa, zeinaren bidez bigarren bezala aldatzen baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzen eta gaurkotzen duen Dekretua. Aldaketa horrek dagoeneko jasotzen du sistema sanitarioko I+G+B erakundeen antolaketa, bi kategoriatan banatuta: erreferentzia korporatiboa eragile berezia da, eta lau institutuak, berriz, ikerketa sanitarioko zentroak. Ebazpen batean gauzatuko da antolamendu hori, 2020ko hasieran.

Testuinguru autonomikoan, halaber, berriro adierazi behar da Eusko Jaurlaritzak I+Gko inbertsioa urtean % 5 handitzeko hartutako konpromisoa.

Azkenik, 2019ko monitorizazio-ekitaldirako, tarteko berrikuspenerako garatutako metodologia erabili da –3. eranskinean dago deskribatua–.



3.

ESTRATEGIAREN AURRERAPENA



3. ESTRATEGIAREN AURRERAPENA

2019an erregistratu diren aurrerapenak biltzen ditu jarraipen-txosten honek, sistemak 2016-2018 aldian zuen egoerarekin alderatuta¹. Kapitulu honetan, ardatz bakoitzak izandako aurrerapen nagusiak ikus daitezke, ekintzei buruzko azterketa zehatz baten bidez.


3.1. ESTRATEGIAREN AURRERAPEN OROKORRA

Hedapen-maila handia lortu du estrategiak. Estrategiaren 57 ekintzetatik² % 94,7 gauzatu dira. Zehazki, ezarriak daude ekintzen % 26,3 (15); aurreratuak, % 49,1 (28); hasiak, % 19,3 (11); eta oraindik hasi gabe, % 5,3 (3). Ekintza gehienak (% 75,4) fase aurreratuetan daude, edo ezarriak dagoeneko.

Aurreko aldiarekin alderatuta, aurrerapausoak egin dira ekintzen % 33an: hasi gabe zeuden 4 ekintza hasi dira; 8 ekintza igaro dira hasita egotetik aurreratuta egotera; eta 5 ekintza, berriz, aurreratuta egotetik ezarrita egotera, 4. irudian ikus daitekeen bezala:

4. Irudia.

Ekintzen aurrerapen-maila, 2016-2018, 2019 (ekintza kopurua, %)




¹ Konparazio-erreferentziarako, ikus «Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia 2020. Tarteko berrikuspena, 2016-2018».

² Ikus 2 eranskina: Ekintzen zerrenda, ardatzen eta helburuen arabera.

Ardatz bakoitzeko ekintzek izan duten aurrerapen-mailari dagokionez, ikus daiteke 1. ardatzak (Eragina) eta 2. ardatzak (Integrazioa) ekintza gehiago dituztela ezarriak. 3. ardatzean (Pertsonak), progresio handiena hasiak zeuden eta aurreratuak egotera igaro diren ekintzetan gertatu da (eta, neurri txikiagoan, hasi gabe egotetik hasita egotera igaro direnetan), eta 4. ardatzean (Baliabideak), berriz, kategoria-aldaketa bakarra erregistratu da, ekintza bat hasi delako.

5. Irudia.

Ardatz bakoitzeko ekintzen aurrerapen-maila, 2016-2018 aldia vs 2019 (ekintza kopurua, %)



■ HASI GABEA ■ HASIA ■ AURRERATUA ■ EZARRIA


EZARRIA
(3,51 eta 5,00 arteko balioak)

AURRERATUA
(2,01 eta 3,50 arteko balioak)

HASIA
(0,26 eta 2,00 arteko balioak)

HASI GABEA
(0 eta 0,25 arteko balioak)

Jarraian, tarteko berrikuspeneko (2018) eta egungo jarraipen-ekitaldiko ekintzen³ (2019) balorazio konparatiboa erakusten da:



³ Bilakaeraren ondorioz kategorialdaketa izan duten ekintzak adierazten dira, 3. eranskinean deskribatutako metodologiaren arabera.

3.2. ARDATZ BAKOITZEKO AURRERAPENA

3.2.1 ERAGINA ARDATZA

Eragina ardatzak I+G+B jardueren eragina areagotzeko helburua lantzen du, bai herritarren osasuna hobea izateko eta sistema sanitario efizientea izateko emaitzetan nahiz biozientziak-osasuneko sektorearen garapen sozioekonomikoan (enplegua eta aberastasuna sortzea). Horregatik, ezinbesteko ardatza da *R/S3* Espezializazio Adimenduneko Estrategia garatzen laguntzeko. Halaber, Eragina ardatzak kanpoko eragileekin eta I+G+B prozesuaren efizientzia handiagoa izatearekin (balio-kate osoa) lotutako ekintza jakin batzuk sustatu nahi ditu.

Eragina ardatza 6 helburu partzialen inguruan antolatzen da:


- H1.1 Ikerketa eta berrikuntzaren ebaluazio-prozesuak (*ex ante* eta *ex post*) garatzea, ikerketa/berrikuntza mota bakoitzari eta ikuspegi translazionalari egokituta, eta sistema sanitarioaren premietara bideratuta.
- H1.2 Prospektibaren alde egitea eta teknologia eta prozedura sanitarioen ebaluazioa sistema sanitarioaren premietara egokitzea, eta horien erabilpena hobetzea, erabakiak hartzeko eta betearazteko.
- H1.3 sistema sanitarioko I+G+B jardueraren emaitzen balioespena erraztea, eta horien ezarpena eta/edo transferentzia bultzatzea.
- H1.4 Zientzia-teknologiako enpresa eta eragileekiko elkarlana areagotzea, sistema sanitarioa erreferentziako bazkide bihurtzeko.
- H1.5 Berrikuntzen garapena bultzatzea, sistema sanitario horien bultzatzailea izanik.
- H1.6 *R/S3* estrategiaren esparruan ikerketa eta berrikuntzarekin lotutako apustu komunak zehaztea.

Ardatz honen helburuen arabera azterketa orokor batek honako hau adierazten du:

- Helburu bakoitzari dagozkion ekintzen % 71,4 ezarrita edo aurreratuta daude.
- Aurreikus daiteke ekintza aurreratuak ezarrita egongo direla 2020. urtean.
- Helburuetako bi ezarriak daude (% 33,3); bi, aurreratuak (% 33,3), eta beste bi, hasiak (% 33,3).

6. Irudia.

Aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: ERAGINA ARDATZA



Jarraian, xehetasunez azalduko da ekintzen aurrerapena:

1.1. HELBURUA

Ikerketa eta berrikuntzaren ebaluazio-prozesuak (*ex ante* eta *ex post*) garatzea, ikerketa/berrikuntza mota bakoitzari eta ikuspegi traslazonalari egokituta, eta sistema sanitarioaren premietara bideratuta.

1.1.1. EKINTZA. Sortzen ari diren ikerketa-lehentasunak eta berrikuntza-proiektuak zehaztu eta aukeratzeko prozedura(k) gehitzea.

2019ko aurrerapenak

2018an ezarri zen jada ekintza hori, eta aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Europako ikerketa-proiektuak eta berrikuntza-proiektuak hautatzeko prozedurak eguneratzea:** sistematikoki, batetik, Europako ikerketa-proiektuak eta, bestetik, berrikuntza-proiektuak hautatzeari dagokionez, Eurosasun (2.5.2. ekintza) eta Baliosasun (1.3.1. ekintza) programen zeregina nabarmendu behar da, 2019an eguneratu baitziren haien prozedurak. Baliosasunen kasuan, 2019ko bigarren seihilekoan, «Fundanet INNOVAko (Baliosasun) Ideien Erregistroaren Jarraibidea» berrikusi da. Era berean, nabarmentzekoa da Medtech ekimenaren prozedurak eguneratu direla (*ex ante* balorazio-tresna, EAEko sistema sanitario publikoak kanpoko erakundeekin egiten dituen berrikuntza-proiektuetarako).
- **Ikerketa sanitarioko hiru institutuetaiko ikerketa-arloen berrikuspena:** sortzen ari diren ikerketa-lehentasunak eta berrikuntza-proiektuak berrikusten jarraitzen dute Ikerketa Sanitarioko Institutuek (ISI), eta, aldi berean, beren plan estrategikoak egin eta horien jarraipena egitearekin batera, zeinak urtero berrikusten baitira. 2019an, hiru institutuetaiko ikerketa-arloak berrikusi dira.

-
- **Osasun Sailaren deialdirako ikerketa-proiektuak lehenesteko matrize bat egitea:** 2019ko hasieratik, berak egindako matrize bat erabiltzen hasi da Bioaraba ikerketa-proiektuak lehenesteko Osasun Sailaren deialdirako.

2019an, honako hau da ekintza horren balioespena: EZARRIA

1.1.2. EKINTZA. Ikerketa- eta berrikuntza-proiektuen ebaluazioa sistematizatzea:

- *Ex ante*, I+G+B proiektuen barneko deialdi eta proposamenetan.
- *Ex post*, lortutako emaitzen eta inpaktuen gainean, eta/edo proiektua jarraitzeko aukeraren gainean (eskalatzea, ondorengo proiektu bat egitea...).

2019ko aurrerapenak

Ex ante ebaluazioa sistema sanitarioan Baliosasunaren prozeduren bidez eta beste prozedura batzuen bidez sistematizatuta badago ere, ez da gauza bera gertatzen *ex post* ebaluazioarekin. Aurrera egin da I+G+B proiektuekin (IETB) lotutako *ex post* ebaluazioaren sistematizazioan, baina I+G proiektuen *ex post* ebaluazioari dagokionez, ikerketa sanitarioko hiru institutuetatik batean baino ez da egin. Horregatik jotzen da ekintza hau aurreratutzat eta inplementatu gabekotzat. Hala ere, honako aurrerapen hauek identifikatu dira 2019an:

- **Baliosasunaren prozedurak aldian behin berrikustea eta eguneratzea, ideiak eta proiektuak ebaluatzeke, iragazteke eta lehenesteko (*ex ante*):** Baliosasun programaren bidez dago sistematizatuta Berrikuntza-proiektuen *ex ante* ebaluazioa (1.3.1 ekintza). Ideiak eta proiektuak ebaluatzeke, iragazteke eta lehenesteko Baliosasunaren prozedurak aldian behin berrikusi eta eguneratzen dira. (Ikus 1.1.1 ekintza). Baliosasunaren definitutako lan-protokolo normalizatuak (LPN) erabiltzen dituzte ISI guztiek, *ex ante* ebaluazioa egiteko. Hala ere, badira aldian behin eguneratzen eta berrikusten diren egokitzapen edo matrize propioak. BioCruces Bizkaiaren kasuan, «fitxa txikia» eguneratu dute, eta hor sartu dituzte proiektuaren beharrak zehazten eta hasieratik lan-kronograma bat planteatzen lagunduko duten kontzeptuak.
- **Institutuaren I+G+B jardunaldietako berrikuntza-proiektuak ebaluatzeke eredu bat egin du Bioarabak.**
- **ISlek transferentzia-potentziala duten ekimenen emaitzak identifikatzea eta IETBri jakinaraztea (*ex post*):** ISlek transferentzia-potentziala duten ekimenen emaitzak identifikatu, eta IETBri jakinarazten dizkiote, babesteko eta produkzio-sektorerara transferentzia egiteko prozesuan eta/edo praktika klinikoan ezartzeko prozesuan aurrera egiteko. EAEko sistema sanitario publikoaren zorro teknologikoaren parte dira ekimen horiek.
- Osasun Sailaren I+Gko proiektuetarako laguntzen deialdian finantzatutako proiektuen ***ex post* ebaluazioa abian jartzea:** dagoeneko amaituta dauden proiektuen lagin batek

osatzen du 2020tik aurrera deialdiaren kudeaketa-makroprozesuaren barruan aplikatuko den prozeduraren oinarria, erabakiak etengabe hartu eta orientatzeko.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

1.2. HELBURUA

Prospektibari laguntzea eta teknologia eta prozedura sanitarioen ebaluazioa sistema sanitarioaren premietara egokitzea, eta horien erabilpena hobetzea, erabakiak hartzeko eta betearazteko.

1.2.1. EKINTZA. I+G+B continuumarekin lotutako zaintza teknologikorako sistema bat zehaztu eta ezartzea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **2018an definitutako ibilbide-orriaren hedapena:** 2018an definitutako ibilbide-orria hedatu dute ISlek, sarean eta koordinatuta gauzatzeko mekanismoak artikulatzeko ZT/LA prozesuaren sistemaren barruan, honela:
 - BioCruces Bizkaian eta Biodonostian ezarritako ZT/LA sistemak eta tresnak baliozkotu edo balioetsi dira.
 - ISletan zaintzaren xede diren arlo eta ikuspegien azterketa egin da, bai eta hedapen-prozesuena ere.
 - BIOEFen, Kronikgunen, Osakidetzan eta Osasun Sailean ZT/LAko beste sistema edo tresna batzuk aztertu dira.
 - *Gap Analysis* bat egin da. Bertan, zaindu gabeko arloak hauteman dira, eta zer arlo berri sartu erabaki da, bai eta hedapen-prozedurak eta sareko ZT/LA sistema baten arduradunak ere.
- **Zaintza Teknologikoko eta Lehiakortasuneko Adimeneko (ZT/LA) sistema bat ezartzea, sistema mailan:** abian jarri da ZT/LA lantaldea, eta lanketa-prozesuan dago haren lan-prozedura (LPN). Era berean, sistema osorako garrantzitsutzat identifikatutako ZT/LAko arloen banaketa egin da ISI bakoitzerako. Ildo horretan, Errealitate Birtuala eta Errealitate Areagotua (EB/EA) eta Adimen Artifiziala (AA) zaintzeaz arduratu da Bioaraba; Giza Faktorea eta Teknologia Berriak ildoetara eman dien lehentasuna BioCruces Bizkaia; eta Esklerosi Anizkoitza eta Neurodegenerazio Sentsoriala ildoetara, Biodonostiak. Era berean, abian jarri dira 3D inprimaketako zaintza-iturriak. ISlek tailerrekin, jardunaldiarekin eta lan-saioekin osatzen dute ZT/LA, bai eta foroetan parte hartuta ere.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

1.2.2. EKINTZA. Prospektiba-gaitasunak (esploratzea, identifikatzea, testuinguruan kokatzea/egokitzea) garatzea sistema sanitarioaren eraldaketa zein etorkizuneko zerbitzuen diseinua elikatzeko.

2019ko aurrerapenak

Hau da ekintza horren balioespena: **HASI GABEA**

1.2.3. EKINTZA. OSTEBA teknologia sanitarioen ebaluazioko zerbitzurako ekintza-plana diseinatzea, I+G+Bren continuumeke eginkizuna eta enpresa-sektorearekiko interakzioa indartzeko (ikus 1.4 helburua).

2019ko aurrerapenak

Abian da Ostebaren ekintza-plana, honako hau identifikatu ondoren:

- **Teknologia sanitarioen ebaluazioarekin lotutako joerak eta beharrak.**
- **Teknologia sanitarioak ebaluatzeko funtzioen berrantolaketa diseinatzea Osasun Sailean eta BIOEFen**, I+G+B erakunde sanitarioen mapa finkatzearen ondorioz, eta Fundazioari –zentroetako erreferentzia korporatiboa eta Sailari laguntzeko tresna– eginkizun gehigarriak esleitzearen ondorioz.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

1.2.4. EKINTZA. Gidak ezartzen eta/edo eguneratzen laguntzea (jardunbide klinikoari buruzkoak, zer ez den egin behar jakiteko gomendioak, eta abar.), baita ebidentzian oinarritutako zerbitzuak hornitzen ere.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **ISlek MAPAC proiektuan parte hartzea:** MAPAC (Praktika asistentzialaren eta Praktika Klinikoaren Egokitzapena Hobetzea) proiektuan parte hartu dute ISlek, sistema sanitarioaren beharren arabera. Proiektu horretan, desgokiak izan daitezkeen prestazioak identifikatu dira, gomendioak egin dira eta hobekuntza-ekintzak proposatu dira, ohiko praktiken ordezkotako aukera hobeen erabilera sustatzeko. Horrez gain, BioCruces Bizkaian, presako erradiazio ionizatzaileko proben eskaerak behera egin duela ikusi da. Era berean, parte hartzen hasi da 80 urtetik gorakoentzako antidiabetikoak preskribatzeko proiektu batean eta

haurdunaldian B taldeko estreptokokoa bahetzeko autonomia edukitzeko proiektu batean. BioCruces Bizkaian bost erabilera-kasu berri lantzen hasi dira MAPAC Irudia II eta MAPAC Cardio proiektuetan.

- **Praktika klinikoko gidak eta «ez egiteko» gomendioak egitea:** praktika klinikoko gidak eta «ez egiteko» gomendioak lantzen jarraitu da. Honako gida hauek egin dira: Esfortzu-probak Kardiologian Erizaintzako gida, Haurdunaldian elikatzeko gida praktikoa, Paziente onkologikoarentzako elikadura-gida, Dislipemiak kudeatzeko gida eta Bihotz-gutxiegitasunaren gida. «Ez egiteko» gomendioen kasuan, Azetilisteina erabiltzea kontraste iododuna duten probetan gomendioa landu da, bai eta Osakidetzako Erakunde Zentralak lehenetsitako eta kontratu-programan dauden beste gomendio batzuk ere.
- **Prozedura bat lantzea, Biodonostian Praktika Klinikoko Giden (PKG) zerrenda bat egiteko.**

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

1.3. HELBURUA

Sistema sanitarioaren I+G+B jardueraren emaitzen balioztapena erraztea, eta horien ezarpena eta/edo transferentzia bultzatzea.

1.3.1. EKINTZA. Baliosasun programa hedatzea honako hau lortzeko:

- Berrikuntzaren kudeaketa sistemikoa sistema sanitarioan ezartzea.
- I+G+B garapen goiztiarrak berariazko funts batekin laguntzea.
- Kostuaren arabera eraginkorrak izan diren edo balioa sortu duten berrikuntza-proiektuen hedapena edo eskalatzea erraztea (korporatiboki ezartzea sistema sanitarioan).
- Hirugarrenekin sistema sanitarioan sortutako (edo batera sortutako) I+G+B emaitzak esploratzea; baliabide zein gaitasun handiagoak bideratzea emaitzak transferitzeko eta ustiatzeko jardueretara, eta «brokerage» ekitaldietan (sustatzaileek eta inbertsiogileek parte hartuta) era proaktibo batez jokatzeko izan litezkeen berrikuntzak saltzeko.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Hobekuntzak sartzea Baliosasun programan** (dokumentuak, tresnak, jarraibideak eta abar eguneratzea): 2018. urtearen amaieratik, honako hobekuntza hauek ezarri dira programan:

- Dokumentuak eguneratzea (ideia aurkezteko fitxa, powerpoint aurkezpenaren eskema, ebaluazio-matrizea, besteak beste) Batzorde Tekniko Korporatiboak ebaluatu beharreko IKTen esparruko ekimen korporatiboetarako.
- EAEko sistema sanitario publikoaren berrikuntza-proiektuak *ex ante* balioesteko-tresna eguneratzea kanpoko erakundeekin (Medtech ekimena).
- Fundanet INNOVAko (Baliosasun) Ideien Erregistroaren Instrukzioa eguneratzea.

- **Berrikuntza-proiektuak sortzea eta teknologia-zorhoa handitzea:** 2019ko urrian 386 berrikuntza-proiektu zeuden erregistratuta aurrerapen-fase desberdinetan (erakartzea, azterketa, garapena, transferentzia eta merkatua)⁴.

Emaitzak balioesteko eta ustiatzeko jardueren ondorioz, 43 garapenek osatzen zuten BIOEFen teknologia-zorhoa 2019ko urrian: 20 garapen teknologiko, 20 garapen informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) arloan, eta 3 garapen, antolaketa-berrikuntzaren esparruan babestu beharrekoak. 14 patente-familia aktibo daude, eta erabilgarritasun-eredu bat. Bestalde, 8 marka-erregistro, industria-sekretu gisa babestutako 5 asmakuntza (*know how*) eta jabetza intelektualeko eskubideek babestutako 17 garapen daude.

2019an zehar, Ikerketako Emaitzak Transferitzeko Bulegoak (IETB) bilerak egin ditu 20 enpresa eta 6 zentro teknologikorekin baino gehiagorekin, sistema sanitarioko I+G+B ekimenen esparruan, eta 80 bileratik gora, berriz, ikerketa sanitarioko institutueta berrikuntza-kudeatzaileekin, sistema sanitarioko profesionalekin eta abarrekin, I+G+B ekimen espezifikoaren jarraipena egiteko. Aipatzekoa da I+G+B emaitzak balioesteko eta EAEko sistema sanitario publikora transferitzeko LPNa eguneratu izana.

- **Hobekuntzak sartzeko I+G+B kudeatzeko tresnan: Fundanet.** Berrikuntza proiektuak Fundaneten erregistratzen jarraitu da, eta sistema sanitarioan I+G+B informazioa kudeatzeari dagokionez, hobekuntzak egin dira innova moduluan. (Ikus 2.3.4 ekintza).

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

⁴ Azterketa: 30; Erakartzea: 46; Itxiak: 18; Garapena: 127; Merkatua: 110 eta Transferentzia: 55.

1.4. HELBURUA

Zientzia-teknologiako enpresa eta eragileekin lankidetzaren areagotzea, sistema sanitario erreferentziako bazkide bihurtzea.

1.4.1. EKINTZA. Innosasun Programa garatzea lotura duten enpresek eta erakundeek agertutako beharrei erantzuteko.

2019ko aurrerapenak

2018an ezarri zen jada ekintza hori, eta aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Innosasun jardueraren Fundanetaren erregistratzeko jarraibideak eguneratzea.**
- **Berrikuntza-proiektu guztiak balioesteko matrize bat egitea.** Baliosasun eta Innosasun proiektuetarako erabiltzen da matrize hori.
- **Innosasun tarifak eguneratzea, hirugarrenei azterlan klinikoak eskaintzeko:** prezio komunak I+G+B erakundearen sare osorako.
- **Innosasun programa hedatzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko (ZTBES) eragileei eta osasun-sektoreko enpresei zuzendutako ikastaro eta jardunaldietan.** Hona hemen adibide batzuk: RIS3 biozientziak/osasuna sentsibilizazio-jardunaldiak: Osasuneko prestakuntza-ikastaroa, ONCO-interclustering Meeting, DIH Hero Info Day, Bind 4.0 jardunaldia: Interaction / collaboration of companies with the Basque Public Health System, udako ikastaroa (Bioaraba): Enpresa biosanitarioen zeregina saiakuntzen garapenean, 2017/745 Europako Erregelamendu berria produktu sanitarioen diseinu, fabrikazio eta merkaturatzeari aplikatzeari buruzko ikastaro-tailerra eta «Osasunerako wearable-ak eta lan-arriskuen prebentzioa» jardunaldia.
- **Handitu egin da sistema sanitarioak artatutako erakundearen kopurua:** Innosasun jardueraren guztiei eta jardueren Fundanetaren lortutako emaitzei buruzko informazioa biltzen du sistema sanitarioak. 2016-2019 aldian 223 laguntza-eskaera egin dituzten 140 erakunderi eman zaie arreta (Euskadikoak –122–, Estatukoak edo multinazionalak).

Hau da ekintza horren balioespina: **EZARRIA**

1.4.2. EKINTZA. Industriarekiko interakzioa areagotzea, hauen bitartez:

- Esparru-akordioak edo aliantza estrategikoak ezarriz (Bioklusterrarekin, banako enpresekin, enpresei laguntzeko erakundeekin eta abarrekin).
- Elkar ezagutzeko jardunaldiak egitea, lankidetzeta-aukerak zehaztuz, eta jarduketak edo ekimenak elkarrekin diseinatuz.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **MedTech eta BIND 4.0 ekimenak aprobetxatzea**, enpresekin egiten diren bileren kopurua handitzeko –bilera horien bidez proiektuak erakartzen dira–. BIND 4.0 programaren esparruan, 12 enpresa traktoreei aholkularitza eman zaie berrikuntzak garatzeko eta jardunaldiak antolatzeke, hala nola «Interaction/collaboration of companies with the Basque Health System» izenekoa. 113 *start-up* hautagaietatik 14 igaro dira finalera.
- **Jarduera jarraitua garatzea (sistematizazio-maila desberdinarekin), enpresekin eta beste erakunde batzuekin bilerak, bisitak eta jardunaldiak egiteari dagokionez:** ISlek jardunaldiak, tailerrak eta foroak antolatu dituzte, non industriak parte hartu baitu. Horren ondorioz, akordioak (ikerketa kooperatiboko hitzarmen espezifikoak, dohaintzetarako akordioak, babesletza-kontratuak, laginak lekualdatzeko hitzarmen espezifikoak, etab.) eta aliantza estrategikoak ezarri dituzte hainbat enpresarekin. Era berean, konfidentzialtasun-akordio batzuk sinatu dira, esparru-akordioak ekar ditzaketenak etorkizunean.
- **Esparru-akordioaren zirriborro bat egitea Basque Health Clusterrekin**, zeina kontraste-prozesuan baitago. Basque Health Clusterrek lankidetzeta estua du Innosasuneko nodo koordinatzailearekin enpresen negozio-garapenaren alderdi orokorretan.
- **2018an Mondragon Korporazioko enpresen eta EAEko sistema sanitario publikoaren arteko lankidetzan jabetza industrial/intelektuala arautzeko sinatutako esparru-akordioaren jarraipena:** 2019an, 2 bilera egin dira, lankidetzan ari diren proiektu/jardueren berrikuspen orokorra egiteko eta balizko lankidetzeta interesgarriak bateratzeko.

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

1.5. HELBURUA

Berrikuntzen garapena bultzatzea, sistema sanitarioa trakzio-elementua izanda.

1.5.1. EKINTZA. Sistema sanitarioaren premien edo erronken inguruan Erosketa Publiko Berritzailerako tresna ezartzea.

2019ko aurrerapenak

2019an, aurrez identifikatutako lau erronka teknologikoetan (medikuntza pertsonalizatua; bizi-kalitatea, pazientearen ahalduntzea eta arretaren humanizazioa; ekipamendua, instalazioak eta prozesu adimendunak; eta jasangarritasuna, eraginkortasuna eta ekonomia zirkularra) egon daitezkeen elkarriketa tekniken balioespenak premia gisa identifikatu du kirurgia robotikoaren arloa. Europako CPI EURIPHI sarean eta EUREGHA erosketa publikoaren ereduak hobetzeko eskualdeen sarean parte hartu da. Horrez gain, erosketa publikoari buruzko hedapena egiten jarraitu da Osakidetzako zerbitzuetako erakundeetan, bai eta prozesuaren zatiak eguneratzen ere, orain arte lortutako esperientziaren arabera.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

1.5.2. EKINTZA. Berrikuntzak sartzeko, lehen erreferentzia hornitzeko zein egoera errealean ebidentzia sortzeko mekanismoak laguntzea.

2019ko aurrerapenak

EAEko sistema sanitarioak sistematizatu egin du antolamendu-berrikuntzarekin eta IKTekin lotutako berrikuntzak sartzeari; beste berrikuntza-tipologia batzuei dagokienez (biofarmazeutikoak, gailuak, etab.), lanean ari da I+Gko emaitzak txertatzeko mekanismoak ezartzeko.

2019an, aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Innosasun programaren esparruan errekrutamendua betetzen duten azterlanei buruzko txostenak egitea:** lehen erreferentziako horniduraren berrikuntza sartzeari eta egoera errealean ebidentzia sortzea bultzatzen duen mekanismo bat da Innosasun Programa (1.4.1 ekintza), eta programaren barruan, gailu eta teknologia medikoak garatzea eta baliozkotzea errazten du Medtech ekimenak. Errekrutamendua betetzen duten bost azterlan egin dira (Promonitor, IBD-monitor, Belk, checkpoint, Reoxcare-UPPs), bai eta 2 txosten ere (Bioferula eta Reoxcare-UPPs). 2019ko amaieran, aribidean zegoen hirugarren txosten bat (IBD-monitor).
- **Parte-hartze handiagoa izan da Europako proiektuetan,** non sortzen baitira «entregagaiak» eta praktika klinikora eramanez daitezkeen emaitzak, osasun-

zerbitzuetako ikerketaren esparruan 38. 2016tik praktika klinikoan aplika daitezkeen 21 entregagai egin dira, hala nola antolaketa-ereduak eta -prozesuak (ebaluazio-ikerketako txosten teknikoak, hezkuntzako tresnak eta aplikazioak edo materialak). Europako proiektuetan parte hartu dute Osakidetzako, BIOEFeko, Ikerketa Sanitarioko Institutuetako (Ikerbasqueko langileak eta beste batzuk barne) eta Kronikguneko 450 profesionalek baino gehiagok (2018an baino 50 gehiagok).

- **Antolaketa-berrikuntza bat sartzeari EAEko sistema sanitarioa guztian:** sistema sanitario osora eskalatu da paziente pluripatologikoentzako ibilbidea, zeina Kronikgunek parte hartzen duen ACT@SCALE proiektuaren emaitza baita. 2019ko urrian aurkeztu du ibilbide hori Osakidetzak.
- **Adierazleen bidez praktika klinikora egindako translazioa neurtzea:** ikerketa sanitarioko institutuek, Carlos III.a Osasun Institutuaren Egiartapenak Ebaluatzen Gida Tekniko berriarekin bat etorriz, praktika klinikora egindako translazioaren adierazlea neurtzen hasi dira. Adierazle horri dagokionez, praktika klinikoan aplikatutako 47 emaitza zeuzkan Biodonostia ISlax, 2018ko abenduaren 31n.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

1.6. HELBURUA

Ikerketa eta berrikuntzarekin lotutako apustu komunak zehaztea, *RIS3* Estrategiaren esparruan.

1.6.1. EKINTZA. EAEko Espezializazio Adimentsuen *RIS3* Estrategiaren deskubrimendu ekintzaileko prozesuaren buru izatea biozientziak-osasuna binomioan, eta dagokion pilotatze-taldea koordinatzea:

- EAEko ekosistemako beste eragile batzuek ikerketa eta berrikuntzako agendetan parte har dezaten bultzatuz (ikus 2.1 helburua).
- Beste erakunde batzuen gaitasunak biozientziak-osasunaren esparruko bazkide eta finantzatzaile gisa gehituz.

2019ko aurrerapenak

2018an ezarri zen jada ekintza hori, eta aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **RIS3 biozientziak/osasuna dinamika («aurkikuntza ekintzailea»):**
 - Pilotatze-taldearen 3 bilera prestatzea eta egitea. Aurrerapenak sei hilean behin aurkeztea ZTBP Euskadi 2020ren Jarraipena egiteko Sailarteko Batzordean.

- 4 zutabetan egitea jardueren egituraketa globala: I+G+B; negozio-ereduak; nazioartekotzea; eta prestakuntza eta hedapena.
- Gaikako arloen berregituraketa: Medikuntza Pertsonalizatuak Onkologia, gaixotasun kardiometabolikoak eta Medikuntza Birsortzailea/Terapia Aurreratuak biltzen ditu, datuen analitika aurreratua zeharkako teknologia gisa kontuan hartuta, eta *Big Data* izeneko azpitaldeko entregagaia (unitatea eta datuak eskuratzeko programa) garatuta, zeinak bere jardura bertan behera utzi baitu. EIP-on-AHA ekimen estrategikoak –zahartze aktibo eta osasungarriari buruzkoa– eta ITHACA proiektuak –lotutako politikei buruzkoa– erakunde berriak sartu dituzte eremu horretan.
- Eguneratu dira lantaldeetako kideak (parte-hartzaile berriak erregistratzeko, hala nola Viralgen eta ViveBiotech, gaixotasun arraroetan), prozedurak (esaterako, mailing eta web bidezko hedapena, Innobasquerekin lankidetzan) eta lankidetzaproiektuak (100 baino gehiago aktibo 2019an).
- **Lantaldeak koordinatzea, dagozkien ekintza-planak hedatzen eta I+G+B programak egiten laguntzea, eta sinergiak bilatzea eta lankidetzan aritzea beste talde profesional batzuekin.**

Hau da ekintza horren balioespina: **EZARRIA**

1.6.2. EKINTZA. Baterako jarduketak zehaztu, diseinatu eta garatzea biozientziak-osasunaren esparrua handitu dadin, eta erakunde arteko elkarlana nahiz elkarlan publiko-pribatua sendotzea.

2019ko aurrerapenak

2018an ezarri zen jada ekintza hori, eta aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **BIND 4.0 programak** 6 lankidetzaproiektuekin (enpresa traktoreak eta *start-up*-ak) amaitu zuen 2018ko edizioa (osasun-esparrua barne hartu zuen lehenengoa), eta, 2019ko ekitaldian, 10 enpresa traktorek parte hartu dute, *pitch*-en faserako hautatutako 8 EAEko *start-up*-ekin. Programa horretan, aholkularitza eta orientazioa ematen ditu sistema sanitarioak.
- **Lan-komunitatearen bilakaera EIP-AHAN:** Reference Site gisa funtzionatzeak erakunde berriak sartu ditu Euskadiko «ekosisteman», eta, gaur egun, honako hauek parte hartzen dute: Eusko Jaurlaritza (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila); Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia; Arabako Foru Aldundia; Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzua; Mondragon Korporazioa; Tecnalia; IK4; Euskal Osasun Klusterra; Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU); Euskampus; Deustuko Unibertsitatea; Matia Institutua; BIOEF Osasun Berrikuntza eta Ikerketako Euskal Fundazioa; BioCruces Bizkaia,

Bioaraba eta Biodonostia ikerketa sanitarioko institutuak; Kronikgune Institutua – Zerbitzu Sanitarioen Ikerketa Institutua–; Grupo SSI; eta Zahartze Osasuntsurako Estrategiarako GFAREN Adinberri Fundazioa. Egiazki, arrakastatsua izan da dinamika hori; izan ere, EIP-on-AHAREN hirugarren deialdian (2019) Euskadi izan da ahalik kalifikaziorik handiena (lau izar) duten sei *Reference Site-etako* bat, eta bikaintasun-ziurtagiria eman diote («*Special recognition for excellence*»).

- **Zahartzeari buruzko lantalde berri bat garatzea**, «*Innovation in Health and care for all*» (ITHACA) proiektuaren esparruan egindako lanaren ondoriozkoa, 2020tik aurrera ekintza-plan bat hedatzeko eta, bereziki, zahartzeari buruzko I+G+B programa espezifiko bat diseinatzeko helburuarekin, etorkizuneko ZTBP 2030 planarekin lerrokatuta, non lehentasunezko zeharkako eremuetako bat izango baita.
- **Action Plana ezartzen ari da Network for Technology, Innovation and Translation in Ageing (TITTAN) delakoan.** Hiru ekintza nagusi ditu: SENTI ON plataforma bultzatzea; balio-katearen sorrera sustatzea zahartzeari dagokionez; eta prozeduren ezarpena erraztea Erosketa Publiko Berritzailearen Bulegoan. INTERREGeko idazkaritzak (Europakoak) *Action Planaren* lehen zirriborroa berrikusi du eta onetsi da dagoeneko.
- **Lantaldeen berrikuntza nagusiak eta ekintza-planak hedatzea:**
 - Gaixotasun arraroetan, I+Gko lankidetzaproiektuak garatzea (adibideak: «Farmakoen toxikotasuna gaixotasun arraroetan»; «Sortzetiko patologien detekzioa, prebalentzia eta tratamendua EAEn»; Lagin neonatalekin egindako analisi metabolomikoak; terapia genikoa; estrategia diagnostikoak eta pronostikoak), enpresa-garapenean egindako aurrerapenekin batera (Atlas Molecular Pharma eta Clinical Development Porphyria Consortium (AEB) erakundeen arteko lankidetzahitzarmena eta NIHri egindako baterako proposamena (hasierako kontzeptu-probaren saiakuntza kliniko bati heltzeko finantzaketa). 2019an aktibo egon diren I+Gko 75 proiektu baino gehiagotan parte hartu du sistema sanitarioak.
 - NEURON, parte hartzen duten talde/erakundeen gaitasunen lehen inbentarioa egin ondoren, 5 ekintza-eremu definitu dira (Irudi-teknologiak; Errehabilitaziorako gailuak; Biomarkatzaileak eta diana terapeutikoak; Robotika; Datuen analitika aurreratua) hainbat arlotarako (patologia taldeen arabera, etab.). I+G arloko 200 proiektu baino gehiago garatzen ari da sistema sanitarioa (saiakuntza klinikoak barne); horietatik 50 baino gehiago sistematik kanpoko erakundeekin lankidetzan ari dira egiten, eta I+G arloan lankidetzan egiten diren beste adibide batzuk dira honako hauek: Tratamendu berriaren fase aurreklinikoak eta Alzheimer gaixotasunerako plasmako biomarkatzaileak (enpresarekin eta hainbat agente zientifiko-teknologikorekin); Gaixotasun neurologikoen patogenia: DNA mitokondrialaren eta kolesterolaren rola; depresio handiaren (enpresa eta agenteak) diagnostiko-testa (*in vitro* molekularra); eta garuneko

proteinen mapaketa (mugaz gaindikoa); Akitania Berriarekin (Gérontopole) eta Oxfordeko Unibertsitatearekin lankidetzak gaixotasun neurodegeneratiboetan; eta lotura Oxford Institute on Population Ageing institutuarekin.

- Medikuntza pertsonalizatua, I+G+B programaosatzen ari da (identifikatutako zutabeetako baten barruan) Onkologiako (lehentasunezko zortzi ekintza identifikatu ditu) eta Medikuntza Erregeneratiboko eta Terapia Aurreratuko azpitaldeetan (minbiziaren aurkako immunoterapia; Terapia zelularra/terapia exosomekin; Terapia genikoa; Ehun-ingeniaritza/3D bioinprimaketa; Zauriak orbaintzea/medikuntza erregeneratiboa) eta hiru esparrutan ari da lanean (arrisku kardiobaskularra; metabolismoa –obesitatea, diabetesa, dislipemiak eta gibeledako metabolismoa–; eta bizi-ohitura osasungarriak –nutrizioa–) gaixotasun kardiometabolikoen azpitaldean. Proiektu kooperatiboan adibide gisa, honako hauek aipa daitezke: Onkologiako tratamendu pertsonalizatua, data analytics eta mikrofluidikoa integratuz (enpresarekin); Bularreko minbiziarentzako estrategia terapeutiko eta diagnostiko berriak; Obesitatea: estrategia diagnostiko eta terapeutiko pertsonalizatuak garatzea, karakterizazio molekularrean oinarrituta; Paziente zahartuen zauri kronikoak orbaintzea; eta haurren hipoakusiaren detekzio goiztiarra (mugaz gaindikoa). Sistema sanitarioa 180 proiektu baino gehiago ari da garatzen lankidetzan.
- Gailu medikoetan, abian jarri da Digital Innovation Hubs plataforma osasun-Robotikan –DIH Hero– 11 herrialdeetako 17 bazkiderekin, eta enpresa ertain eta txikiei dirulaguntzak emanda, produktuen garapena errazteko. Gainera, Lantaldearekin koordinatuta lan egin da prestakuntza-gaietan (adibidez, gailu medikoak erregulatzeari buruzko ikastaroa/tailerra: 3 modulu (dosier teknikoa egitea; ebaluazio klinikoa eta merkaturatu osteko jarraipena; kalitatea kudeatzeko sistemak; 2019-2020). 2019an, lankidetzako I+G arloko 80 proiektu baino gehiago daude (sistema sanitarioa eta beste batzuk), Innosasun programako proiektuez gain, eta, adibide gisa, BegiVit aipa daiteke: Betazalak bereizteko gailu bat garatzea –erabili eta botatzeko modukoa–, begi barneko ziztadetan medikazioa errazago emateko.
- Negozio-ereduetan, EAEko enpresen produktuak/teknologiak/zerbitzuak eta heldutasun teknologikoaren maila (Technology Readiness Level, TRL) identifikatzen lan egin da, horiek garatzen laguntzeko, gobernu hainbat sailetan eskuragarri dauden tresnekin; eta kanpo-zerbitzuak emateko plataforma baliozkotu da (DGPI akreditazioa, ISO 15189 ziurtapen-prozesua), produktu sanitarioak baliozkotu dira proiektuetan eta azterlanetan). Horrez gain, hainbat jardunaldi eta topaketa egin dira, beste lantalde batzuekin lankidetzan, eta batera antolatu dira eta/edo parte hartu da, gutxienez, ekintzailatzeko, inbertsioko edo enpresa-azelerazioko bost ekitaldi, programa edo ekimenetan (nazioarteko bi) eta nazioarteko topaketa sektorialetako beste bost ekitalditan.

- Talentua eta Prestakuntzaren zeharkako arloan, Lanbide Heziketaren esparruan egin dira aurrerapen nagusiak, BIO Nodoa sortu zenetik: 15 akordio sinatu dira hainbat erakunderekin (sanitarioak barne); ikerketa eta berrikuntza aplikatuko hiru diziplina ezarri dira sare osoan (nekazaritza-elikadura; osasuna-biozientziak; osasuna-zahartzea), eta garatzen ari dira horiekin lotutako espezializazio-programak (prestakuntza duala barne, 2019-2020 ikasturtean); era berean, abian jarri dira Nekazaritzako elikagaien, Biologia Molekularraren eta Biologia Zelularren laborategi berriak Tknikaren egoitzan (nodo koordinatzailea).

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

1.6.3. EKINTZA. Aldebiko ekimen espezifikoak ezartzea, hala nola talentua erakartzea eta emaitza bibliometrikoak zabaltzea Ikerbasquerekin.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Ekoizpen zientifikoari buruz:**

- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Osasuneko sailburuordearen 2019ko martxoaren 5eko Ebazpena, zeinaren bidez ematen baitira egiletza-aipamena eta EAEko sistema sanitarioko filiazio instituzionala bateratzeko jarraibideak (afiliazio anizkoitzak barne). Afiliazioari eta ekoizpen zientifikoari buruzko lantaldearen entregagaietako bat dira jarraibideak, eta indarrean jarraitzen du lantaldeak (jarraibideak betetzea, eguneratzea, *open science* politikekiko harremana, etab.).
- Sistema sanitarioaren ekoizpen zientifikoa irudikatzeko modua aldatu da ekoizpen hori zehatzago ikusteko Ikerbasquek egiten duen Euskadiko Zientziaren Txostenean.

- **Lankidetzan aritzea talentua erakartzeko programetan eta erakundeekin:** Biodonostia lankidetzan jarraitzen du Donostiako Sustapenarekin ikertzaileak hartzeko; DonostiaINN delakoaren bitartez ari da egiten lan hori, Tokiko talentuaren itzulera izeneko programa ren barnean. Bizkaia Talenti dagokionez, harremanak hasi dira 2019ko azaroan, ekimen posibleei berriro ekiteko. BioCruces Bizkaiak, bestalde, lankidetzan jarraitzen du Bizkaia Talent eta BBK Fundazioarekin: deialdiak eta kide berriak. 2016 eta 2019 artean, EAEko sistema sanitarioak 186 langile berri hartu ditu (Ikerbasque, Bizkaia Talent, BBK, POST-MIR, etab.), eta horietatik 21, Ikerbasquerenak dira.

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**


AURRERAPEN-MAILARI BURUZKO BALIOESPEN KUANTITATIBOAREN LABURPENA, HELBURUEN ETA EKINTZEN ARABERA

Abian daude helburu guztiak **Eragina ardatzean**, eta ezarritzat jotzen dira horietako bi.

- Ezarriak daude ekintzen % 42,9 (sei); horietako bost 1.4 eta 1.6 helburuei dagozkie.
- Aurreratuak daude lau ekintza (% 28,6).
- Hasiak daude hiru ekintza (% 21,4).
- Hasi gabe dago prospektibari buruzko ekintza bat (% 7,1), baina sareko zaintza-sistema ahalbidetu da, jarduera horrekin lotuta.

7. Irudia.

Ekintzen aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: ERAGINA ARDATZA



EZARRIA
(3,51 eta 5,00 arteko balioak)

AURRERATUA
(2,01 eta 3,50 arteko balioak)

HASIA
(0,26 eta 2,00 arteko balioak)

HASI GABEA
(0 eta 0,25 arteko balioak)

3.2.2. INTEGRAZIOA ARDATZA

EAEko sistema sanitario publikoak berrantolaketa-prozesu bat gauzatu du biztanleriaren eta sistemaren premiei erantzuteko, eta, horrenbestez, kalitateari eta iraunkortasunari dagokionez hobetzeko. Sistema eraldatzeko prozesu horrek ekarri du hura Erakunde Sanitario Integratuen inguruan artikulatzea eta ikerketa sanitarioko institutuak eta Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutua sortzea. Hala ere, bi berrantolaketak aldi berean gertatu ziren, eta bateratu egin behar dira.

Integrazioa ardatzak premia hori hartu du aintzat eta I+G+B jarduera asistentzia- eta irakaskuntza-alorrean betetzen duen zereginean txertatzeko lanean aurrera egiteko asmoa du EAEko sistema sanitario publikoak, jarduera horren instituzionalizazioa indartuz, plangintza eta jarraipena egiteko mekanismoetan sartuz eta pertsonal sanitarioaren, ikertzaileen eta kudeatzaileen kultura alda dadin lagunduz. Asmo horrek lau oinarri ditu: I+G+B jardueri lehentasuna ematea, I+G+Bren gobernantza (sistema gisa eta zerbitzu-erakundearen kudeaketan), informazio-sistemak aprobetxatzea, eta I+G+Bren arau-esparrua egokitzea. Ardatz horretan 5 helburu nagusi proposatu dira:

H2.1 Sistemaren premia eta gaitasun nagusien inguruan ikerketa- eta berrikuntza-agendak garatzea.

H2.2 Ikerketaren eta berrikuntzaren plangintza-, kudeaketa- eta gobernantza-eredua hobetzea ikuspegi sistemiko eta integratu baten bidez.

H2.3 Informazio-sistemen aprobetxamendua eta iturri ezberdinetako datuen erabilera hobetzea.


H2.4 Arau- eta lege-esparrua egokitzea I+G+B sisteman txertatzeko.

H2.5 Sistema ireki, konektatu eta nazioartekotu baterantz aurrera egitea.

Ardatz horri helburuen arabera egindako azterketa orokor baten bidez ikus daiteke helburu bakoitzari dagozkion ekintzen % 88,8 ezarriak edo aurreratuak daudela, oro har. Aurreikus daiteke ekintza aurreratu gehienak ezarrita egongo direla 2020. urtean.

8. Irudia.

Aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: INTEGRAZIOA ARDATZA



Jarraian, ekintzen aurrerapena dago jasota.

2.1. HELBURUA

Sistemaren behar eta gaitasun nagusien inguruan ikerketa- eta berrikuntza-agendak garatzea.

2.1.1. EKINTZA. Datozen urteetarako ikerketa- eta berrikuntza-agendak aukeratzea gai eta patologia interesgarriei buruz (diabetesa, onkologia, kardiobaskularra, etab.), eta sistemaren zeharkako premiei buruz (medikuntza pertsonalizatua, datu handiak, e-osasuna, zahartzea, zerbitzu sanitarioak, inplementazioa, etab.).

2019ko aurrerapenak

Ikerketa- eta berrikuntza-agenda hauek identifikatu dira biozientziak-osasuna RIS3 estrategiaren eta osasunaren testuinguruan:

- Onkologia (medikuntza pertsonalizatuaren zati gisa).
- Medikuntza birsortzailea eta terapia aurreratuak (medikuntza pertsonalizatuaren zati gisa).
- Patologia kardiometabolikoak (medikuntza pertsonalizatuaren zati gisa).
- Gaixotasun arraroak.
- Neurozientziak eta neuroteknologiak.
- Zahartzea.
- Zerbitzu sanitarioetako ikerketa.

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

2.1.2. EKINTZA. Ikerketa- eta berrikuntza-programak zehaztea hautatutako agenden inguruko azterketa integrala eginez.

2019ko aurrerapenak

Agendak identifikatu ondoren, RIS3 estrategian jada ezarrita dauden edo 2019an eratu diren lantaldeek I+G+B lehen programetan egin dute lan, zeinak, gaur egun, definitze- eta/edo baliozkotze-fasean baitaude.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

2.2. HELBURUA

Ikerketaren eta berrikuntzaren plangintza-, kudeaketa- eta gobernantza-eredua hobetzea ikuspegi sistemiko eta integratu baten bidez.

2.2.1. EKINTZA. Dauden egituren (I+G+B eta kudeaketa) egitura-, erantzukizun- eta eginkizun-mapa berria komunikatzea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- Osasuneko sailburuak EAEko sistema sanitarioko **I+G+B erakunde**en mapa onartu ondoren (Bioaraba, BioCruces Bizkaia, Biodonostia, Kronikgune), eta buru korporatibo bat (BIOEF) eta Bioaraba Osasun Ikerketako Institutu Elkartea eratuta (2018ko azaroa), erakundeen mapa horren gobernantza-dekretu bat egiten hasi da, maparen gaur egungo *de facto* funtzionamenduari sendotasun juridikoa emateko.
- 2019ko otsailean, **Bioaraba Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) agente gisa akreditatzea**, ikerketa sanitarioko institutuen kategorian.
- **Kronikgunek Osasun Zerbitzuetako Ikerketa Institutua izatera igaro dela jakinarazi du**, I+G+B mapa berrian agertzen den moduan.
- **Jada badauden egituren erantzukizunen, funtzioen eta egituren mapa berria jakinaraztea** (I+G+B eta kudeaketa): erakundeen mapa eta haren funtzioak askotan jakinarazi dira (jardunaldiak, topaketak eta *ad hoc* bilerak, hala nola «Erakunde Sanitario Integratuei eta ikerketa sanitarioko institutuei buruz» izenburuko hedapen-jardunaldia Bioaraba ISlan, zeina lurralde bakoitzean errepikatuko baita).

Kronikgunek egituren mapa berria aurkeztu du hainbat forotan (International Conference Integrated Care 2019, European Research and Innovation Days, EIP on Aha Conference of partners eta Kalitate Asistentzialaren Espainiako Elkartearen XXXVII. kongresua).

ISI bakoitzak barne- zein kanpo-komunikazioa gauzatu du bere buruari buruzko komunikazio-saioen bidez (Plan Estrategikoari, Kudeaketa Planari eta abarri buruzkoak), Berritankak jardunaldien bidez (Bioarabaren kasuan), egoiliarrei harrera egiteko jardunaldietan, enpresei eta herritarrei egindako bilera eta tailerretan eta abarretan. Bestalde, ISlen webguneen bidez zabaldu da mapa, bai eta I+G+B eta kalitateari buruzko eskuliburuaren bidez ere.

Era berean, 2019ko irailaren 19an, Osakidetzaen webgune berria⁵ aurkeztu zuten Osasun Sailak eta Osakidetza. Webgune horrek ikerketari eta berrikuntzari buruzko atal bat du, eta, bertan, zentroei buruzko informazioa ematen da.

⁵ www.osakidetza.euskadi.eus

- 2019an zabaldu den **EAEko Sistema Sanitario Publikoaren 2018ko I+G+B memoriak** I+G+B erakundeen mapa berria biltzen du. Memoria hori sistema sanitarioko erakundeei, eragileei eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren EAEko sistema osatzen duten beste erakunde batzuei zabaldu zaie, BIOEFen eta Osakidetzaren webgunearen bidez.
- Egituren mapa berria formalki jakinarazi zaie **Carlos III.a Osasun Institutuari eta Europako Batzordeari** (Funding and tenders portal), eta horiek dira proiektu lehiakorrek finantzatzen dituzten erakunde nagusiak autonomia-erkidegotik kanpo.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

2.2.2. EKINTZA. ESlen gobernantza-organoetan ikerketa- eta berrikuntza-erantzukizunak esleitzea, eta koordinatzaileen edo berrikuntza-erreferenteen figura bultzatzea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **ESletako gobernantza-organoetan parte hartzea:** institutuetako zuzendaritza zientifikoek ESletako zuzendaritza-kontseiluetan edo beste egitura batzuetan parte hartu dute (BioCruces Bizkaian izan ezik –abian da–). Bioaraban, gainera, Batzorde Iraunkorra dute, Arabako ESiko kudeatzailea buru duela; bertan, Bioarabako zuzendaritzak eta BIOEFeko I+G+B kudeatzeko Zuzendaritzak parte hartzen dute. Berrikuntza-batzordeetan ESiko eta dagokion ikerketa sanitarioko institutuko zuzendaritzek parte hartu dute).
- **Berrikuntza-batzordeek, Berrikuntzari Laguntzeko Unitateko langileek (edo horien unitate baliokideak) eta Osakidetzako berrikuntzako erreferenteak/solaskideak (Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan, *de facto*) ESletan berrikuntza kudeatzeko dauden egiturak indartu dituzte**, egitura espezifikorik ez zuten erakundeek beren proiektuak Baliosasun, Innosasun esparru sistematikoan garatu ahal izan ditzaten. Halaber, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza da sistema osorako koordinazio-kanal nagusia, Kronikguneren jardueri (zeharkakoak) dagokienez.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

2.2.3. EKINTZA. Ahaleginak lehenetsi eta koordinatzeko batzordeak sortzea, tartean dauden erakunde ezberdinetako partaideekin.

2019ko aurrerapenak

Sistematizatuta dago batzordeetako edo talde bateratuetako lana (ikus 4. eranskina). 2019an, aurrerapen gehigarri hauek identifikatu dira: bai lehendik zeuden lantaldeetako batzuetan, bai talde berriak sortu direlako:

- **Sistema sanitarioko eragileen arteko koordinazioa sistematizatzea:** 2018ko irailaz geroztik, aurrerapenak egin dira lehendik zeuden lantaldeetako batzuetan, eta talde berriak sortu dira:
 - Lehenago sortutako Aplikazioen taldearen bilakaera, EAEko sistema sanitario publikoko IKTen eremuko I+G+B Ekimenen Batzorde Tekniko Korporatibo gisa eratzeke.
 - Medtech ekimenaren Batzorde Korporatiboa sortzea. Bertan, hiru ISlek parte hartzen dute, berrikuntzari laguntzeko unitateen bidez. Sistema sanitarioak laguntzen dituen enpresa-sektoreko gailu eta teknologia medikoak probatzeko eta baliozkotzeko proiektuak bideratzea eta onartzea da helburu nagusia. Horrez gain, Medtech ekimenaren esparruan garatzen diren jardueren berri ematen eta zabaltzen da batzorde horretan. 2019an, Medtech Batzordearen hamar bilera egin dira.
 - Innosasun-Tarifak lantaldea sortzea. Bertan, sistema sanitarioaren tarifak adostu dira, Innosasunatik hirugarrenei eskaintzen zaizkien azterketa klinikoen eskaintza ekonomikoak egiteko.
 - Giza baliabideen arloko lantaldea sortzea; 2019an bi azpitalde abiarazi dira institutueta langile propioekin eta atxikiekin zerikusia duten alderdiak lantzeko, eta esparru komun bat landu da, Barne Erregimeneko Erregelamenduarekin lerrokatur (berrikusia, eta ikerketa-taldeei buruzko kapitulu bat osatzeko prozesuan). Onarpen-fasean daude lehenengo entregagaiak, institutueta oro har aplikatu ahal izateko.

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

2.2.4. EKINTZA. Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (BIOEF) eguneratzea, eta haren baliabideak etapa berri honetarako egokitzea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Gobernantza-dekretuari dagokionez (ikus 2.2.1. ekintza), garapen-prozesuan dago BIOEFen beharrezkoak diren profilen definizio zehatza.** Profil berriak edo osagarriak

sartu dira BIOEFen 2020ko aurrekontuan –EAEko Aurrekontu Orokorretan dago jasota–, Fundazioaren gaitasuna egungo etapara eta buru korporatibo gisa duen zereginera egokitzeko. Aurrera egin da historia klinikotik eta beste informazio-iturri batzuetatik ikerketa-proiektuetarako edo Osasun Sailaren eskaeratarako datuak ateratzeaz arduratuko den elkarreragingarritasun-unitate bat sortzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoetan, funtzionaletan eta langileei buruzkoetan.

- **Kudeaketa ekonomiko-administratiboarekin lotutako funtzioen deszentralizazioa** (laguntza-eskaerak, proiektuen diru-sarrera finalistak lortzea eta lotutako gastua gauzatzea, akordioak eta hitzarmenak), I+G+B proiektuetan eta ikerketa kliniko bakarrekoetan, eta deialdien hedapena eta aholkularitza ikertzaileei eta itzulpen zientifikoko zerbitzuari. Funtzio horiek ISI guztiek betetzen dituzte gaur egun.

Ekintza hori hertsiki dago lotuta 2.2.5 ekintzarekin.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

2.2.5. EKINTZA. I+G+B egituren eta haien kudeaketaren epe ertaineko eboluziorako ibilbide-orri partekatua zehaztea.

2019ko aurrerapenak

Espezifikoa da 2.2.5 ekintza, eta 2018an ezarri zen. 2018an zehaztu zen 2018rako eta 2019rako ibilbide-orria. (Ikus 2016-2018 aldiko tarteko berrikuspen-txostena, informazio gehiago eskuratzeko).

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

2.2.6. EKINTZA. *Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren* funtzionamendua aldatzea, haren emaitzak zein erabiltzen duten pertsona eta erakundeen pertzepzioa hobetzeko.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Lantalde bat planteatu da IEBm-ren (Medikamentuen eta Produktuen Espainiako Agentziak medikamentuekin ikertzeko Etika Batzorde gisa egiaztatutako Euskadiko IEB) funtzionamendua hobetzeko proposamenak egiteko**, batez ere erantzun-denborako premia nagusiei (eskatutako iterazioak barne) eta dokumentazio-eskaerari

dagokienez. Hori guztia, batzorde hori I+G+B continuumean –eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan saiakuntza klinikoak erakarri, kudeatu eta gauzatzeko makroprozesuaren barruan– egokiago nola txerta daitekeen jorratzeko hausnarketa zabalago baten esparruan.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

2.3. HELBURUA

Informazio-sistemen aprobetxamendua eta iturri ezberdinetako datuen erabilera hobetzea.

2.3.1. EKINTZA. Ikerketarako eta osasungintzako erabakiak hartzeko, askotariko iturrien datuetarako sarbidean eta interakzioan aurrera egitea (datu-baseak, informazio kliniko, biobankua, erregistroak, datu omikoak...).

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **BIOEFen eta Osasun Sailaren artean akordio bat sinatu da**, Biobankuaren eta gaixotasun arraroen erregistroaren artean **datu-baseak eta informazioa partekatzeko**.
- **BIOEFen eta Osakidetzaeren artean akordio bat sinatu da, datu-transferentziari estaldura emateko**, Euskadiko IKBEren behin betiko onarpena duena. Datuak transferitu ondoren garatuko da plataforma.
- **Laneko azpitaldeak**, hainbat enpresak (askotariko enpresetako 37 parte-hartzaile), Teknologia Zentroek (TZT), Unibertsitateek eta Sistema Sanitarioak osatzen dutenak, «**Ikerketa-proiektuetan informazio kliniko eskuratzeko kudeaketa-eredu bat ezartzeko analisia**» egiteko RIS3 estrategiaren esparruan, proposatu du sortzea elkarreragingarritasun-unitate bat eta gobernantzaren eskema bat, hainbat iturritatik (historia kliniko, erregistroak, etab.) datozen datuak lortzeko. Horren bidez, osasun-datuen ereduak atera, kargatu eta sortu ahal izango dira, eta, era berean, ikerketa-proiektuak garatuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen eta enpresen artean, aurrerapen berriak sortzeko osasun-arloko *Big Data*ren eremuan.
- **Osabide Biobankua kudeatzeko plataformarekin konektatzea**: Euskal Biobankuaren plataformatik Osabidera ikerketa-proiektuetan sortutako laginei eta lotutako datuei buruzko informazioa bidaltzeko prozedura prestatu da, «**Ikerketa-proiektuetan sortutako osasun-datuak eta datu omikoak berrerabiltzea**, ondoren haien erabilera kliniko egiteko eta datuen analisi aurreratua erabiltzeko etorkizuneko proiektuetan» proiektuan eskuratutako irakaskuntzetan oinarrituta.

- **Pazienteak errekrutatzeke fasean dauden saiakuntza klinikoen informazio-fitxa Onkobide tresnan sartzea** (onkologia-pazientearen prozesu farmakoterapeutikorako Osakidetzan ezarritako softwarea). Horrela, pazienteen errekrutamendua errazten da, pazienteak saiakuntza egiten ari diren zentroetara bideratuz diagnostikoaren ezaugarrietara ondoen egokitzen den medikamentu esperimentalarekin (ikus 4.4.2. ekintza).
- Datuak anonimo egiteko prozedura bat sortzea, DBEOren eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren gomendioen arabera, «Privacy-preserving implementations of required analytics» MIDAS proiektuaren entregagai baten zati gisa.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

2.3.2. EKINTZA. Populazioaren osasun-arloko emaitzen datu-baseak garatzea (onkologia, patologia kardiobaskularrak, haurren osasuna, osasun publikoa eta bestelako eremu interesgarriak).

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Datu-base propioak sortzea:** Osakidetza Business Intelligence (OBI) da I+G+B sanitarioko zentroetarako informazio-iturri nagusia. Horren bidez, behar den informazioa ateratzen da eta *ad hoc* datu-baseak sortzen dira I+G+B proiektu bakoitzerako. Horrez gain, bereak sortzen dituzte institutuek, hala nola, Loaren Unitatearen datu-basea; kataratei buruzko oftalmologiarena; gliomena (Gliocom); toraxeko minarena; eta Neuropediatriakoa. Gaur egun, bi datu-base daude garatze-fasean; bata, onkologiarako, eta, bestea, psikiatriarako. Era berean, Europako UPRIGHT proiektuaren barruan, erabilera korporatiboko datu-base bat sortu da (Osakidetza) gaixotasun mentalaren historia naturala eraiki ahal izateko; eta, Europako MIDAS projektuan parte hartzearen ondorioz, datu-base anonimizatu bat sortu da 890.000 pertsonaren 120 aldagairekin, OBI (Osakidetzako Oracle Business Intelligent) dagoen informazioa erabilita.
- **Datu-baseetan parte hartzea Europako proiektu edo sareetan parte hartuta** –hala nola *ICHOM Catarata eta Fight Retinal Blindness* – eta datu irekien biltegietan parte hartuta (*Sweet Initiative: International Diabetes registry, International DSD (Disorders of sex development) registry*, Adenoma Hipofisarioen Erregistro Nazionala, Gaixotasun Arraroen Euskal Erregistroa, Histiozitosien Nazioarteko Erregistroa, Pubertaro Goiztiarreko Erregistro Nazionala, Prader Williren Erregistro Nazionala eta Hipofosfatemiaren Nazioarteko Erregistroa).
- **5 akordio korporatibo sinatzea (sistema maila)** datu-baseetan parte hartzeko, honako erakunde hauekin, hurrenez hurren: Technical Research Centre of Finland, VTT, Vicomtech, Analytics Engines, Katholiek Universiteit Leuven eta University of Ulster.

- **Datu-baseak kudeatzeko jardunbide egokien eskuliburu bat garatu du BioCruces Bizkaiko Bioinformatikako Unitateak**, ikertzaileentzat eta Institutuko beste profesional batzuentzat.
- **Big Data plataforma bat sortzea, 3 tresna dituen**: datuak aztertzeko eta bistaratzeko motorra; chatbot (twitter) baten aurreko erantzunaren balorazioa; eta medline eta egunkarietako artikuluen bilatzaile espezializatua.
- **Bihotzez kodearen erregistroa integratu eta hura arautzeko dekretu bat egin du** Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak, gaixotasun kardiobaskularrei dagokienez.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

2.3.3. EKINTZA. Informazio-sistemak erabiltzea I+G+Brekin lotutako prozesuak harmonizatzeko eta sinplifikatzeko.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira ekintza horretan:

- **Lantaldeekin lotutako informazioa Fundaneten erregistratzea**: lantaldeak Fundaneten erregistratzeko prozedura bat egin da, BIOEFek eta osasungintzako I+G+B zentroek partekatua, erakunde guztiek jakin dezaten nortzuk diren LT bakoitzeko parte-hartzaileak, bai eta horietako bakoitzari lotutako dokumentazioa ere.
- Tarteko berrikuspenean, Fundaneten erregistrora gehitu diren zazpi lantalde sortzea aurreikusten zen; orduz geroztik, **LT6 lantaldeak izena aldatu du, LT7k bat egin du (eta xurgatu egin du) LT3 lantaldearekin, eta sei talde berri formalizatu dira**, zerrenda honetan ikus daitekeen bezala:
 - LT1 Ekoizpen zientifikoa.
 - LT2 Azterlan klinikoak (operatiboa): azterlan klinikoko zenbait eredu aldatu dira, eta aurrerapausoak egin dira barne-araudian.
 - LT3 Proiektuak (Europakoak barne).
 - LT4 Hirugarrenak, ikuspegi integralarekin: Datuak sartzeko eskuliburu bat sortu da Fundaneten.
 - LT5 Akordioak eta hitzarmenak: Akordioen Moduluei buruzko LPN bat sortu da. 2018an definitu zen, eta 2019ko amaieran berrikusiko da.
 - LT6 Berrikuntza-proiektuak (Innosasun, Baliosasun).
 - LT7 Sareko laguntzen katalogoa.

- LT8 Zaintza teknologikoa.
- LT9 Fundanet.
- LT10 Osasun Sailaren deialdia.
- LT11 Giza Baliabideak: Institutuetako berezko langileei buruzko barne-araudia egin da.
- LT12 CVA eta adierazleak.

Hau da ekintza horren balioespena: EZARRIA

2.3.4. EKINTZA. I+G+B osoki kudeatzeko osasun-sistema osorako dagoen tresnaren eragiketa hobetzea (BIOEFek kudeatzen du):

- Berrikuntza kudeatzeko modulu berria sartzea.
- Osasunaren arloko profesionalek eta ikertzaileek horretara sartu eta modu homogeenan erabiltzeko erraztasuna ematea, baita sistematik informazioa ateratzeko ere gizarateak oro har ezagutu dezan.

2019ko aurrerapenak

2018an ezarri zen jada ekintza hori, eta aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Dagoeneko erabilgarri dauden moduluetan hobekuntzak egitea**, sistema sanitario osorako eskuragarri dagoen I+G+B osorik kudeatzeko tresnaren (Fundanet) operatiboa modu kontrolatuan hobetzeko:
 - Proiektuen modulua: funtzionalitate berriak, datu batzuk ateratzea errazten dutenak, hala nola guztizko zenbatekoa eta hirugarrenen identifikazio-zenbakia kontsulta guztietan eta hirugarrenekin lotutako informazio guztia bistaratzea.
 - Innova modulua: web-zerbitzua ezarri da, ikertzaileei eta ideien eta proiektuen kudeatzaileei sarbidea emateko. Era berean, berrikuntza-taldeen konfidentzialtasuna hobetu da, proiektu bakoitzean sartzen den informazioari dagokionez, eta lan egiten ari da hirugarrenen informazioa kontsultatzeko (berrikuntza-proiektuekin lotutako informazioa).
 - Erosketak kudeatzeko modulua: erosketen modulua parametrizatu da, erosketen kudeaketa-moduluan integratutako erosketa-eskaeren web-kudeaketarako tresna bat abian jartzeko.
- **Modulu berriak eskuratzea**: ospitaleetako farmazia-zerbitzuek egindako jarduera guztien kontrola eta jarraipena egiteko modulu bat ari da txertatzen, bai eta informazio-

sistema korporatiboarekin integratzen den kontratazio-espediten kudeaketako beste bat ere. Eskuratzeko prozesuan daude Fundaneteko moduluak –lehiaketak, erosketak eta farmazia–. Horrez gain, Global Data programaren erosketak zentralizatu du BIOEFek.

- **Prozedurak eguneratzea eta lantzea:** aipatutako Baliosasun eta Innosasunekoz gain, proiektuen irizpide bateratuen txostena eguneratu da, alderdi berriak barne hartuta, hala nola *stakeholder*-en erregistroa eta hirugarrenen sailkapena; eta Fundaneten egindako aldaketen jakinarazpenak erregistratzen hasi da.
- **Hedapen-buletin bat sortzeko lan egiten ari da,** I+G+B erakundeen (BIOEF eta Institutuak) maparako. Buletin horretan, kudeaketa-tresnan egindako berrikuntzak eta/edo aldaketak zehaztu eta xehatuko dira.

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

2.4. HELBURUA

Arau- eta lege-esparrua egokitzea I+G+B arloa sisteman txertatzeko.

2.4.1. EKINTZA. Jabetza intelektualaren arau-esparrua garatzea eta emaitzak ustiatzea.

2019ko aurrerapenak

Latente egon da lantaldea.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

2.4.2. EKINTZA. Pertsonen buruzko araudien garapenean aurrera egitea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Giza Baliabideen lantaldea sortzea:** I+G+B zentroek eta BIOEFek esparru komun bat zehazteko lan egin dute, honako hauei dagokienez: lan-egutegia, lanaldia eta ordutegia, atsedenaldiak, oporrak, ordainsariaren araubidea eta langileen sailkapena, mendekotasun organikoa eta funtzionala. 3 azpitalderen bidez dago egituratua lantaldea:
 - 1. azpitaldea: Langile propioak. Haren helburua da BAEren (Barne Araubidearen Erregelamendua) VIII. kapitulua garatzea, eta, amaitzeko, institutuetako langile propioen barne-araudiaren proposamen bat egitea.

- 2. azpitaldea: Institutuei atxikitako Osakidetzako langile ez-klinikoak. Haren helburua da Osakidetzak kontratatutako eta institutuetan lanaldi osoa izango duten langileak (ikertzaileak, plataformak eta kudeaketa) antolatzen proposamen bat egitea.
- 3. azpitaldea: Institutuei atxikitako Osakidetzako langile klinikoak. Hasi gabea. Haren helburua da proposamen bat egitea, Osakidetzarekin egingarritasuna egiaztatu ondoren, I+G+B jardueren aintzatespena areagotzeko.

- **Human Resources Strategy for Researchers (HRS4R) estrategia garatzea:** HRS4R estrategia garatzen jarraitu dute BioCruces Bizkaiak eta Biodonostiak. 2019an, Europako Batzordeari aurkeztu zaio BioCruces Bizkaiaren estrategia, eta balorazio bikaina jaso du. Estrategia horren esparruan, BioCruces Bizkaiak deialdi espezifiko bat egin du minusbaliotasunari buruzko legeria betetzeko, berdintasun-konpromiso bat landu da eta barne-lantalde bat deitu da, prestakuntza- eta lankidetz-egonaldiak kudeatzeko prozedura eguneratu da, eta berdintasunaren aldeko konpromisoa sustatu da.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

2.4.3. EKINTZA. Hirugarrenetik harremanetarako garrantzitsuak diren araudiak egokitu edo garatzea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Akordioak eta hitzarmenak lantaldea:** LT horren esparruan (2018an jada bazegoen), aurrerapen hauek egin dira:
 - **Akordioen tipologia eta haiek Fundaneten erregistratzea:** gaur egun dauden akordioen tipologiak⁶ ezarri dira. Horrez gain, akordio horiek zehaztu, eta sinatzaileak identifikatu dira kasu bakoitzean. Bestalde, erabili beharreko akordio-ereduak landu eta adostu dira, eta akordio horiek Fundaneten erregistratzeko prozedura bat ezarri da, informazio bateratua atera ahal izateko.
 - **Datuen babesari buruzko klausulak aldatzea zenbait akordio motatan,** indarrean dagoen araudi berrira egokitzeko. «Datuak Tratatzeak Akordioa» izeneko tipologia berri baten beharra identifikatu da, Datu pertsonalak babesteari

⁶ Hona hemen landutako akordio-ereduen motak: esparru-hitzarmena, ikerketa kooperatiborako lankidetz-hitzarmena, prestakuntza-egonaldiaren hitzarmen arautzailea, lankidetz-hitzarmena - Mezenasgoaren Legea, dohaintza-akordioa, babes-kontratua, kudeaketa-gomendioaren akordioa, liberazio-akordioa, I+G+B zerbitzuak emateko kontratua, zerbitzuak azpikontratatzeko kontratua eta konfidentzialtasun-akordioa.

buruzko Europako Erregelamendu berriaren eta 2018ko abenduan indarrean zegoen 3/2018 Lege Organikoaren ondorioz, Espainiako ordenamendu juridikoa 2016/679 (EB) Erregelamendura egokitzeko. EAEko sistema sanitario publikoan akordioak eta hitzarmenak kudeatzen dituen erakunde bakoitzeko Datuak Babesteko Ordezkariekin (DBO) ari da lan egiten, eredurik egokiena ezartzeko.

- **Ikerketa sanitarioko institutuak (ISI) eta Euskal Biobankua batera ari dira lanean, irizpideak bateratzeko, lagin biologikoen kudeaketa dakarten akordio eta hitzarmenei dagokienez.**

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

2.5. HELBURUA

Sistema ireki, konektatu eta nazioartekotu baterantz aurrera egitea.

2.5.1. EKINTZA. Lankidetzak akordioak garatzea osasunaren arloko bestelako ikerketa- eta berrikuntza-sistemekin.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Sistema sanitarioan areagotu egin da beste herrialde eta eskualde batzuekiko lotura.** Gaur egun, elkar ulertzeko 4 memorandum daude, batez ere baterako proiektuen bidez garatzen ari direnak (Ipar Irlanda, Akitania, Eskozia eta Gales). 2016. urteaz geroztik 43 proiektu egin dira eskualde horiekin lankidetzan, eta Europako proiektuak dira horietako 22. Nabarmentzekoa da 2019an EAEko sistema sanitarioak 34 protokolo sinatu dituela osasunaren arloko beste ikerketa- eta berrikuntza-sistema batzuekin. Halaber, 4 truke egin dira beste sistema sanitario batzuekin (Gales, Singapur, Txile eta Uruguai).
- **Europako proiektuetan parte hartzearen ondoriozko partzuergo-akordioak sinatzea:** C3Cloud proiektuaren barnean, *Data Processing Agreement* akordioa sinatu dute bazkideek. Bestalde, 2018an jada badiren lankidetzaren ondorioz, Mujeres por Africa fundazioarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera parte hartu da «Ellas investigan» programan eta «*Scorecard for Continuous Assessment and Improvement of Programmes on Integrated Care for Multimorbid Patients*» proiektuan.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

2.5.2. EKINTZA. Eurosasun programa ezartzea, eta Europako proiektuen esparruan berariazko lan-plana zehaztea sistema sanitarioaren Europako presentzia eta emaitzak handitzeko.

2019ko aurrerapenak

2018an ezarri zen jada ekintza hori, eta aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Osasun-arloko tailerrak eta jardunaldiak egitea:** bi jardunaldi egin dira hiru lurraldeetan (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa) eta tailer bat (Horizon 2020 proposamen-idazketa). Horrez gain, *Infoday* bat antolatu dute elkarrekin Innobasquek, SPRIk eta BEAZek –*Basque Enterprise Europe Network* (EEN) partzuergoko kideak–, BIOEFek, EEEK eta CDTIk, RIS3 Euskadi estrategiarekin lotutako azken H2020 deialdiei buruz, eta bi bilera egin dira bi urtean behin EAEko sistema sanitario publikoaren arduradunarekin.
- **Eurosasun programaren emaitza nagusiak 2019an:** 2019ko urriaren 31n, 56 proposamen zeuden aurkeztuta nazioarteko deialdietara, eta horietatik 25 ebatzi dira. Guztira, 8 onartu dira (% 32ko arrakasta-tasa, oso ona). 2019an, nazioarteko 53 proiektu daude aktibo (zortzi, osasun-zerbitzuen arloan).
- **Europar duten presentzia handitzearekin lotutako helburuak eta ekintzak beren plan estrategikoetan sartzeari ikerketa sanitarioko institutuek:** BioCruces Bizkaia helburu estrategiko espezifiko bat sartu du 2018-2022 aldiko Plan Estrategikoaren 3. ardatzean: «3.2 BioCruces Bizkaia-aren parte-hartzea eta lidergoa sendotzea Estatuko eta Europako I+G+B lankidetzaren proiektuetan, sareetan eta foroetan», hari dagozkion ekintzekin. BioDonostiak, 2016-2020 aldiko Plan Estrategikoaren barruan eta Minbiziaren Plan Estrategikoan, honako ekintza hauek ditu: 3.4. Estatuko eta nazioarteko sareko egituretan partaidetza sustatzeko plana, 4.7. Nazioarteko funtsak erakartzea sustatzeko plana eta 2.2. Proiektu azeleragailuak eta/edo Europa horizontea prestatzea.

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

2.5.3. EKINTZA. Osasungintzako profesionalek eta ikertzaileek Estatu eta nazioarteko ikerketa- eta berrikuntza-sareetan parte har dezaten erraztea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Osasungintzako I+G+B zentroek informazioa eta administrazioarekin eta kudeaketarekin lotutako laguntza ematen dute,** parte hartzea errazteko ikerketa- eta berrikuntza-arloko Europako eta nazioarteko proiektuetan eta sareetan. Politikak diseinatzeko sare edo partzuergoetan parte hartzea sustatzen jarraitu da,

- **Harremanak ezartzea Europako ikerketa-erakundeekin:** Nazioartean, 2016-2019 aldian Europako proiektuetan parte hartzeak sistema sanitarioari ahalbidetu dio bere burua ezagutzera ematea eta harremanak ezartzea Europako 1.182 ikerketa-erakunderekin.

AURRERAPEN-MAILARI BURUZKO BALIOESPEN Kuantitatiboaren eta kualitati- boaren laburpena, helburuen eta ekintzen arabera

- Ezarriak daude ekintzen % 33,3 (6).
- Aurreratuak daude ekintzen % 55,5 (10).

Ekintzen aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: INTEGRAZIOA ARDATZA



3.2.3. PERTSONAK ARDATZA

EAEko sistema sanitario publikoak kalifikazio handiko profesional berritzaileak eta ekintzaileak ditu. Pertsona horiek dira *Learning Healthcare system* kontzeptua errealitate bihurtzeko: etengabe ikasteko eta ikasitakoa aplikatzeko sistema bat. Horrela, berrikuntzak laguntzen dio sistemari jasangarria izaten, osasuna hobetzen eta balioa eta aberastasuna sortzen.

Pertsonak jartzen ditu erdigunean *OIBE2020* estrategiaren hirugarren ardatzak, eta bereziki, EAEko sistema sanitario publikoko profesionalak, haien I+G+B jardura gauzatzeko esparrua hobetzeko, eta ikertzeko eta berritzeko bokazioa sustatu eta, horrela, belaunaldi-erlebo egokia lortzeko. Ikertzeko eta berritzeko kultura sustatu nahi da sistema sanitarioan, jardura horiek ikuspegi estruktural batetik egitea erraztuko duena. Ardatz honetan lortu nahi da, halaber, pazienteek eta herritarrek parte-hartze handiagoa izatea I+G+B eremu espezifikoan.


Pertsonak ardatzak lau helburu partzial proposatzen ditu:

- H3.1 I+G+B jardueren errekonozimendua areagotzea eta lanbide-ibilbideen garapena erraztea.
- H3.2 Sistema sanitarioan sartzen diren pertsonen ikerketaren eta berrikuntzaren arloko gaikuntza areagotzea, baita etengabeko prestakuntza ere.
- H3.3 Ikerketa- eta berrikuntza-komunitateak jasotzen duen laguntza hobetzea, bai metodologiaren/teknikaren aldetik, bai administrazioaren aldetik.
- H3.4 Herritarrek eta pazienteek I+G+B prozesuaren faseetan partaide eta orientatzaile gisa duten inplikazioan aurrera egitea.

Ardatz honi egindako helburuen arabera azterketa orokor batek erakutsi du helburu bakoitzari dagozkion ekintzen % 68,7 ezarriak edo aurreratuak daudela, eta, halaber, aurreikusten da ekintza gehienak ezarriak egotea 2020an. Ekintza bat dago hasi gabe. Helburuetako bi ezarriak daude (% 33,3); bi, aurreratuak (% 33,3); eta beste bi, hasiak (% 33,3).

10. Irudia.

Aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: PERTSONAK ARDATZA



Jarraian, xehetasunez azalduko da ekintzen aurrerapena:

3.1. HELBURUA

I+G+B jardueren errekonozimendua areagotzea eta lanbide-ibilbideen garapena erraztea.

3.1.1. EKINTZA. Ikerketa eta berrikuntzako merezimenduen eskakizuna areagotzea –askotariko ekarpenak kontuan hartuta (ikertzaileek, laguntzaileek, berritzaileek eta abarrek egindakoak)–, eta merezimendu horiek aintzat hartzea pertsonen lan-sarbide eta -aurrerapenean.

2019ko aurrerapenak

Ekintza honetan ez da aurrerapen nabarmenik egon maila korporatiboan.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

3.1.2. EKINTZA. Kudeatzeko prozesu edo mekanismoetan zientzia-ekoizpeneko adierazleak eta bestelakoak (I+G+B) gehitzea, eta I+G+Ba erakundeen «ekoizpen-ildotzat» hartzea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Arabako ESlaren aginte-koadroa aldatzea, I+G+B adierazle berriak sartzeko:** Arabako ESlak aurreikusten du I+G+B neurtzea bere Plan Estrategikoan, eta horretarako ardatz estrategiko espezifiko bat zehaztu du Bioarabarekin. Bioarabako Plan Estrategikoa egiteko, adierazle berri batzuk adostu ditu institutuak Arabako ESlarekin, aginte-koadroa osatzeko.
- **Biodonostian eremu bakoitzean lortutako emaitza guztien laburpen-dokumentu bat egitea:** dokumentu hori urtero sortzen da, eta, denborak aurrera egin ahala, adierazle bakoitzaren konparazio objektibo bat lortzen da, eta oso interesgarria da adierazle horiek urteetan zehar izan duten bilakaera ikusteko.
- **BioCruces Bizkaia adierazle berriak sartzea,** egiaztapen-gida berria dela-eta adierazleak berrikusi ondoren. Era berean, I+G+B adierazleak dauzka jarduera klinikokoan Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlak.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

3.1.3. EKINTZA. I+G+B jardueretan aritzeko erraztasuna ematea, eta esparru orokor koherenteak garatzea jarduera horiek egitea errazteko eta horrelako jardueren jarraipena egiteko.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Denbora-bonuen irismena handitzea** Bioaraba-ESlan: argitalpen zientifikoen ekoizpena erraztea da bonuen helburua, eta handitu egin dira, berrikuntza-proiektuei denbora eskaintzeko. 2019an, 25 ikerketa-bonu eta 15 berrikuntza-bonu eskaini dira.
- **Beste deialdi bat sortzea kanpoko zentroetako egonaldiak errazteko, BAME osteko plazen kopurua hirura zabaltzea urte bakoitzeko –2 urtez luzatzeko aukerarekin–, eta lau plaza gehitzea, zortzira iritsiz, BioCruces Bizkaian Intentsifikazioa egiteko.** Horrela, 21 profesional liberatu daude (16, intentsifikaziokoak, eta 6, BAME ostekoak) barne-deialdien bidez. Hautaketa-irizpidetzat hartu da ikusgarritasuna; irizpide berria izan da, institutuarekiko afiliazio egokia sustatzeko argitalpenetan.
- **I+G+B jarduerak egiteko liberatutako profesionalen kopurua handitzea** Biodonostian, Langile Klinikoak Liberatzeko Deialdiaren bidez. Deialdi horren helburua da ikerketa-ildo berriak sortzea eta doktorego-tesietan jardutea, ekarpen ekonomikoa eginez horretarako. 2019ko urrian, EAEko sistema sanitario publikoko 30 profesional zeuden liberatuta, I+G+B jardueretan aritzeko.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

3.1.4. EKINTZA. Prospektiba eta plangintza sartzea egituraren, profilen eta abarren premiak sistema sanitarioko ikerketa- eta berrikuntza-jardueretara egokitzeak.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Giza baliabideak LT sortzea;** horren bidez, egitura-beharrak, profilak eta abar egokitzeak plangintza egin da, sistema sanitarioko erakundeekin lerrokatzea ahalbidetzen duena. Era berean, «Lanpostuen kategorizazioa» izeneko dokumentu bat egin da.
- **BIOEFen profilak zehazteko lanean ari da,** erreferentzia korporatibo gisa dituen funtzioen arabera, eta eskatutako jasangarritasun ekonomikoari egokitutako behar estrukturalak aurreikusteko.

- **Profilak eta egitura-beharrak identifikatzeko eta planifikatzeko ekintzak egitea ikerketa sanitarioko institutuek.**

- Bioaraban, institutua osatzen duten pertsona guztien lanpostuen deskribapena egin da, egindako jardueretan egon daitezkeen bikoiztasunak edo gabeziak hautemateko. Azterlan horren emaitzaren arabera zehaztuko da zer profil sar daitezkeen ISlan, eta lortutako emaitzak partekatuko dira.
- BioCruces Bizkaian, HR Planaren berrikuspenarekin bat, hobekuntzak sartu dira kontratazio-deialdietan, erabaki-faseetan, aurrekontu-plangintzan, lanpostuen ebaluazioan, hautagaien ebaluazioan eta hautaketan, ongietorri-prozeduran eta lanpostuen kategorizazioan. Kontrol-teknikari bat kontratatzea proposatu da, prospektiba egiten laguntzeko.
- Egitura-beharrak, profilak eta abar egokitzeko plangintza bat egin da Biodonostian, sistema sanitarioko erakundeekin lerrokatu ahal izateko.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

3.1.5. EKINTZA. Ikerketa eta berrikuntzako proiektu eta lanbide-ibilbide onenak aitortzeko planak ezartzea, baita arlo horretan gehien nabarmentzen diren zentroei dagokienez ere.

2019ko aurrerapenak

Institutuek egindako ekintzak jaso dira, ez baita aurrerapen esanguratsurik egin sistemaren edo korporazioaren ikuspuntutik:

- **Ikerketa-jardunaldien bidez, Bioarabak eta Arabako ESlak ikerketa eta berrikuntzako sariak ezarri dituzte urtero hainbat kategoriatan.** 2019an, 10 sari modalitateren deialdia egin da ikerketa eta berrikuntzako proiektuak nahiz profesionalen ibilbideak saritzeko. «*Irudi Bankua*; soluzio baten garapena» izenekoak proiektu sanitario onenaren saria jaso du; eta honako honek berrikuntza-ideia onenarena: «*Smart remote treatment*: medikuntza pertsonalizatua nahasmendu bipolarra duten pazienteen tratamendurako».
- **BioCruces Bizkaian, Eskertze aintzatespen-jardunaldiaren bidez aitortu zaie lana profesionali;** Ezkerralde-Enkarterri Gurutzetako ESlarekin batera egiten da jardunaldi hori. 2019an, ikerketa-talde baten buru diren ikertzaile berriak aintzatetsi dira.

-
- **Langile propioen garapen profesionalean ari da lanean Biodonostia, ebaluazio-sistema objektibagarriak ezartzeko eta barne-deialdi baten bidez sustapen-prozesu bat ezartzeko.** Horrez gain, Bidasoko ESlak eta Goierri-Urola Garaiko ESlak Ikerketa eta Berrikuntza jarduera aitortu dute beren 2019ko aintzatespen-jardunaldietan.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

3.2. HELBURUA

Sistema sanitarioan sartzen diren pertsonen ikerketaren eta berrikuntzaren arloko gaikuntza areagotzea, baita etengabeko prestakuntza ere.

3.2.1. **EKINTZA.** Sistema sanitario osoan egindako ikerketaren eta berrikuntzaren arloko prestakuntza-jarduerak koordinatzea eta EAEko beste eragile batzuen (BERCak, ikerketa-zentro korporatiboak, unibertsitateak...) prestakuntza-baliabideak aprobetxatzea (batzea).

2019ko aurrerapenak

Ekintza honetan 2019an izandako aurrerapenak aldez aurrekoak dira, baina ez dira nahikoak ekintzari ekiteko. Ekintza hasi aurreko urrats gisa, honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Sistemako I+G+B zentroetan prestakuntza-planak egitea, berrikustea eta eguneratzea:** Ikerketa sanitarioko institutuek prestakuntza-plan bat dute, aldian-aldian berrikusi eta eguneratzen dutena. Biodonostiak bere prestakuntza-plana birdefinitu du, AECC fundazio zientifikoaren eskakizunetara egokitzeko.
- **ISlen eta ESlen arteko aliantzak ezartzea, prestakuntza koordinatzeko:** BioCruces Bizkaiaren kasuan, koordinazio-bilerak egin dira Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESlarekin, Barrualde-Galdakaoko ESlarekin eta Bilbo-Basurtuko ESlarekin, prestakuntzen baterako argitalpena definitzeko. Halaber, jardunaldiak, ikastaroak, jarduerak eta mintegiak egin dituzte ESlarekin batera. Biodonostiak aurreikusten du prestakuntza koordinatzeko aliantza bat ezartzea IZARKIrekin (Donostialdeko ESlko Ezagutzaren eta Berrikuntzaren Unitatea).
- **Prestakuntza-jarduerak dibulгатzea:** Eraikitzen ari dira Biodonostia ISlaren web-orriko prestakuntza-atala.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASI GABEA**

3.2.2. EKINTZA. Osasungintzako prestakuntza espezializatuaren aldia zehar ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak, ikertzeko prestakuntza espezializatuaren osteko kontratuak (BAME, BAFE...) bultzatzea, baita ikertzaile juniorren jarraipena eta tutoretza ere.

2019ko aurrerapenak

Aurreko urteetan ezarritako neurriak sustatzen jarraitzen da, I+G+B jarduerak bultzatzeko osasungintzako langileen prestakuntza-aldietan, bai eta ikertzaile gazteen garapena sustatzeko ere:

- **Doktorego klinikoak egitea.** Doktorego klinikoko programa hori abian da 2016az geroztik BioCruces Bizkaian. Programa horretan, profesionalak ikerketan murgiltzen dira ikerketa sanitarioko institutu batean, eta hor egiten dituzte beren doktorego-tesiak. Aurreko urteetan aurkeztutako tesi nagusiak hedatzeko jardunaldi bat egiten da urtero. 2019an, 31 pertsonak hartu zuten parte.
- **BioCruces Bizkaiak eta Biodonostiak garatzen jarraitzen dute Sortzen ari diren Taldeei Laguntzeko Plana, eta BioCruces Bizkaiak jarraitzen du garatzen BAME osteko urteko deialdia,** non, tesien eta egonaldien bidez, ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak egitea bultzatzen baita.
- **Bioaraban egoiliarrek aktiboki erakarri dira ikerkuntzan trebatzeko,** doktorego-programak eta etorkizuneko ikerketa-lanak tutorizatuz, doktorego-tesiak barne. Era berean, BAME osteko aldi baterako eskaintza bat argitaratu da.
- **Biodonostiak askotariko jarduerak egiten jarraitzen du, institutuaren Egoiliarren Programaren barruan.** Osasungintzako Prestakuntza Espezializatuan langileek duten prestakuntzaren arabera, hainbat jardura berrantolatu dira, langile horiek aprobetxamendu handiagoa egite aldera, Donostia Unibertsitate Ospitaleko (Donostialdeko ESI) Irakaskuntza arloaren laguntzarekin. Era berean, beste jardura batzuk ere egin dira, hala nola artikulak idazteko ikastaroak, mintegiak, kanpoko langileen hitzaldiak, etab. 2016az geroztik, ikerkuntzari buruzko bi saio egin dira familiako eta komunitateko medikuntzako eta erizaintzako egoiliarren prestakuntza-programaren barnean. 2019an, egoiliarrentzako aurkezpen-saio bateratua egin da, eta familiako BAEak eta BAMEak ere sartu dira.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

3.2.3. EKINTZA. Ikerketa-egonaldien programa bat egitea, sistemaren premiak lehenetsita, eta bestelako zentro edo sistema sanitarioekin akordioak egitea (Estatuan eta nazioartean).

2019ko aurrerapenak

2019ko abenduan, ez da ikerketa-egonaldi bateratuko programarik egin, baina erakundeek ekimena hartu dute ekintza horretan, eta lantalde bat sortzea aurreikusi da. Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Lankidetza-hitzarmenak egitea lanbide-heziketako (LH) bi ikastetxerekin:** akordioak egin dira Erandio Tartangako zentroarekin eta Miranda de Ebro LHko zentroarekin, laborategiko teknikariei prestakuntza emateko.
- **Beste deialdi bat egin da ikerketa-egonaldien programarako,** ikertzaileek Estatuko edo nazioarteko beste zentro batzuetan egindako egonaldiak indartzeko gutxienez bi hilabetez. Era berean, indarreko urtean, lankidetza-hitzarmenak egin dira 16 erakunderekin: UPV/EHU, Vic-eko Unibertsitatea, Kataluniako Unibertsitate Zentrala (Uvic), Almeriako Unibertsitatea (Ual), Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea (Unir), Rovira I Virgili Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea (Unav), Cayetano Heredia Perutar Unibertsitatea, Kataluniako Unibertsitate Irekia, Bartzelonako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea (Dirs), Calasanz Lanbide Ikastegia, Europar Unibertsitatea.
- **Beste zentro batzuetako egonaldiei lotutako jardueraren prozedura ezarri da BioCruces Bizkaian.** Egonaldiak kudeatzeko prozedura, bai eta egonaldietarako eskabide-ereduak ere, Institutuko web-orrian eskura daitezke. 4 esparru-akordio berri eta 16 akordio espezifiko egin dira (hurrengo puntuan zehazten dira).
- **Ikerketa-egonaldiak ugaritzea:** BioCruces Bizkaian 63 prestakuntza-egonaldi egin dira, eta horrek 63 akordio espezifiko/lankidetza-hitzarmenen eranskin ekarri ditu; horietatik 35 UPV/EHUrekin sinatu dira, eta 28, beste erakunde batzuekin. Bioarabak bi prestakuntza-premia identifikatu ditu, ikerketa-egonaldien bidez bete direnak (oftalmologo baten egonaldia, ICHOM proiektuarekin lotuta, eta pneumologo baten egonaldia, neurozientzien ikerketa-arloko prestakuntzarekin lotuta).

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

⁷ Kretako Unibertsitatea, Asturiasko Unibertsitate Ospitale Nagusia, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea (UC3M), Calasanz Lanbide Ikastegia, Kalifornia Behereko Unibertsitate Autonomoa, Bordeleko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Lleidakoko Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, BCAM, Madrilgo Europar Unibertsitatea, Valentziako Unibertsitatea (UV), Vienako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Marrakexeko Cadi Ayyad Unibertsitatea (marrakesch).

3.2.4. EKINTZA. Lankidetza areagotzea eta trukeak sustatzea unibertsitateekin orokorrean, eta beste prestakuntza-erakunde batzuekin.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Lankidetza-hitzarmen berriak sinatu dira hainbat unibertsitateekin:**

- Bioaraba ISlak akordioak sinatu ditu Mondragonekin, LHko ikastetxeekin eta CEUrekin, graduako azken mailako edo graduondoko ikasleek institutuan Gradu Amaierako Proiektua (GAP) egin ahal izan dezaten.
- Biodonostia ISlan, 6 hitzarmen sinatu dira zenbait unibertsitateekin (Antiokiako Unibertsitatea, Erromako Sapienza Unibertsitatea, Varsoviako Giza Zientzien Unibertsitatea, UPV/EHU, Pomeraniako Unibertsitate Medikoa –Szczecin–, Zaragozako Unibertsitatea), prestakuntza-jarduerak arautzeko, bai graduako ikasleen curriculum-praktikei nahiz curriculumetik kanpokoei dagokienez. Era berean, 51 profesionalek parte hartu dute doktorego-programetan, eta 48 profesionalek master ofizialetan.
- BioCruces Bizkaia ISlak 2019an indarrean izan ditu akordioak hainbat unibertsitateekin (ingeniariak sartzeko programa), bai eta 3D inprimaketarako akordio bat LHko ikastetxe batekin ere (Calasanz Lanbide Ikastegia). Bestalde, bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendutako *Gioconda Salud* programan parte hartu du («BioCruces Bizkaia ISI, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ate irekien programa»).
- Kronikgunen egonaldi bat egin dute Makerereko Unibertsitateko irakasle batek, *Scorecard for Continuous Assessment and Improvement of Programmes on Integrated Care for Multimorbid Patients* proiektuan lan egiteko, eta Warwick-eko Unibertsitateko irakasle batek, arreta integratuari eta arreta digitalari buruz EAEk duen ikuspegia hobeto ulertzeko, eta, gero, diabetesaren arretako testuinguru batean aplikatzeko Erresuma Batuan.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

3.2.5. EKINTZA. Ikerketaren eta lotutako prestakuntzaren arloko lankidetzaren handitzea Euskal Herriko Unibertsitatearekin.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Bioaraban, doktorego-tesien jarraipena eta kontrola egiteko pertsona bat sartu da,** Arabako Medikuntza Eskolako EHUKo ordezkari gisa (Doktorego Eskola). 2019an, garapen-prozesuan egon dira 30 doktore-tesi.
- **Biodonostiak akordio bat sinatu du UPV/EHurekin, graduiko ikasleen prestakuntza-jarduerak** eta curriculumeko eta curriculumetik kanpoko praktikak arautzeko. Era berean, indarrean mantendu ditu egoiliarrei informazioa emateko eta ikerketara hurbiltzeko programarako akordioak, eta UPV/EHUKo Udako Ikastaroetan parte hartzen jarraitu du.
- **BioCruces Bizkaia ISlan 63 egonaldi egin dira, eta 50 profesional baino gehiagok parte hartu dute doktorego-programetan, eta 100 baino gehiagok, irakasle gisa, UPV/EHUKo masterretan.** Doktorego-programa hauetan hartu dute parte: Medikuntzako eta Kirurgiako doktorego-programa, Biologia Molekularreko eta Biomedikuntzako doktorego-programa, Neurozientzietako doktorego-programa eta Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologiako doktorego-programa. 100 profesional baino gehiagok hartu dute parte masterretan irakasle gisa. Master horien barruan daude, besteak beste, Ikerketa Biomedikoko Masterra, Neurozientzietako Masterra, Oinarritzko Onkologiako eta Onkologia Klinikoko Unibertsitate Masterra, Ahoko Patologiako Masterra (berezko titulua) eta Farmakologiako Unibertsitate Masterra.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

3.3. HELBURUA

Ikerketa- eta berrikuntza-komunitateak jasotzen duen laguntza hobetzea, bai metodologiaren/teknikaren aldetik, bai administrazioaren aldetik.

3.3.1. EKINTZA. Sistema sanitarioko I+G+B lagundu eta kudeatzeko langileen oinarritzko diru-kopurua zehaztu eta planifikatzea denboran.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Institutuetao langile propioen barne-araudia egitea,** Giza Baliabideak lantaldearen esparruan.
- **Laguntza- eta kudeaketa-langileen zuzkidurak berrikustea ISletan:** institutuko pertsona bakoitzaren lanpostuaren deskribapena egiten ari da Bioaraba ISI, zereginetan egon

daitezkeen bikoiztasunak edo gabeziak hautemateko (ikus 3.1.4 ekintza). BioCruces Bizkaia-ri dagokionez, I+G+B laguntza- eta kudeaketa-langileen oinarrizko zuzkidura aurkeztu da batzorde betearazleetan. Plataformei dagokienez, erreferenteak berritu ditu ISIak, horien jardueraren eta eskariaren jarraipena egiteaz arduratzen direnak, batez ere plataforma berrietan (koordinazio zientifikoa, Proben Bankua, 3D inprimatze-plataforma). Biodonostian, I+G+B arloari laguntzeko plataformei eta laguntza-unitateei dagokienez behar den kudeaketa-egitura definitzen egin da lan, eta I+G+Bko arloari laguntzeko plataforma berri bat eratu da: 3D inprimaketarako diziplina anitzeko plataforma.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

3.3.2. EKINTZA. BIOEFeko langileak esleitzea ikerketa-zentro edo -talde zehatzetan, laguntza pertsonalizatuagoa eman dezaten eta zerbitzu ona bermatzeko, betiere kudeaketa-tresnen hobekuntzek lagunduta (ikus 2.3 helburua).

2019ko aurrerapenak

2018an ezarri zen jada ekintza hori, eta aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **BIOEFeko langileek bereziki lagundu dute Bioaraba Ikerketa Sanitarioko Institutua Elkartearen jarduerak hasi eta garatzen**, kudeaketaren deszentralizazioa egiteko BIOEFetik ISira. Horrez gain, 2018ko azaroan, prestakuntza-egutegi bat egin zen, deszentralizazio-prozesu horri lotua.
- **Ikerketari Laguntzeko Plataforma jada ez du ezartzen BIOEFek**, baizik eta dagokion ikerketa sanitarioko institutuak. Ikerketa sanitarioko institutuek gauzatzen dituzte proiektuak eta/edo saiakuntza klinikoak, eta, horietan, ISI bakoitzak ematen die babesa proiektuei.

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

3.3.3. EKINTZA. Eragile erabiltzaileei laguntzeko egiturek zer zerbitzu ematen dituzten argi zabaltzea, baita zer solaskiderengana jo dezaketen ere (hainbat bide erabiliz: web-orria, informazio-saioak...).

2019ko aurrerapenak

2.2.1 ekintzarekin lotua dago ekintza hori. Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Jardunaldi hauetan hedatu dira laguntza-egiturek ematen dituzten zerbitzuak: 8** hedapen-jardunaldi egin dira RIS3 estrategiaren esparruan eta Innosasun programan,

enpresen eta beste eragile batzuen eta EAEko sistema sanitario publikoaren arteko lankidetzak errazteko, eta orain dauden laguntza-tresnak eta lankidetzak horren arrakasta-kasuak ezagutarazteko. Jardunaldi bat egin da, jabetza intelektualari eta industrialari dagokienez, eta EAEko sistema sanitario publikoko profesionalen jarduerarekin duen harremanari dagokionez.

- **Honako txosten hauek egin dira eta BIOEFen webgunean argitaratu:** jabetza intelektualaren eta industrialaren kudeaketari eta EAEko sistema sanitario publikoan ikerketa eta berrikuntzako jardueretatik eratorritako emaitzen transferentziari buruzko txostena; Innosasun programari buruzko aurkezpena, 2018ko abenduko datuekin; eta itzulpen zientifikoari buruzko txostena (2006-2018 aldiaren amaierako txostena).
- **Atal berri bat sortu da BIOEFen webgunean, «Beharrezkoa al duzu sistema sanitarioa?» izeneko eremuaren barruan, «Medtech ekimena» izenekoa,** eta han azaltzen da zertan datzan ekimena, nor diren EAEko sistema sanitario publikoko I+G+B erakundeetako harremanetarako pertsonak eta, era berean, aurkezpen korporatibo bat dago ikusgai.
- **Biobankuari (BIOEF) buruzko informazioa zabaltzea:** 12 informazio-bilera egin dira zerbitzu asistentzialekin, Biobankuaren jardura azaltzeko.
- **ISlek beren laguntza-plataformei buruzko informazio zehatza zabaltzeko dute** beren webguneetan eta urteko memoria zientifikoetan, urtero eskaintzen hasiko diren zerbitzu berriak zein diren azaltzeko. Horrez gain, hedapen-jarduerak egin dira jardunaldien bidez, publizitatea kontratatuz, leihatila bakarraren bidez eta/edo posta elektronikoaren bidez.
 - Bioarabak laguntza-egiturek ematen dituzten zerbitzuen berri eman du zazpi Berritankak jardunalditan –plan estrategikoaren bidez, Bioarabaren webgunean, Arabako ESlaren komunikazio-mekanismoen bidez (Infoberrial eta Osaraba)–, bai eta Ikerketa eta Berrikuntza jardunaldietan ere. Lanean ari da plataforma bakoitzaren zerbitzu-zorroa definitzeko.
 - BioCruces Bizkaiak laguntza-egiturek ematen dituzten zerbitzuen berri eman du BioCruces Bizkaiaren web-orriaren bidez (hedapen-jardunaldiak), eta, gainera, mintegi bat egin du, non Saiakuntza Klinikoen Unitateko berrikuntzei buruzko informazioa eman baita. Halaber, zenbait plataformaren bi aurkezpen egin ditu Bizkaiko ESI batzuetan.
 - Biodonostiak laguntza-egiturek ematen dituzten zerbitzuak zabaltzen ditu ISlaren webgunearen bidez. Halaber, hedapenean eta «BIND 4.0» jardunaldian parte hartu du, bai eta «Business & Science Cooperation» topaketan ere, non Biodonostia ISlaren eredia erakutsi baitzen.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

3.3.4. EKINTZA. Egiturek emandako laguntza-lana ebaluatzea, eta itogune nagusietan adierazleak eta hobetzeko helburuak ezartzea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **BIOEFek ebaluatu du egiturek jarduera-adierazleak eta horien bilakaera neurtzeko egiten duten laguntza-lana**, zeina urteko txostenetan islatzen baita.
- **BioCruces Bizkaiak plataformetan hobekuntzak sartzearekin lotutako ekintza espezifikoak txertatu ditu bere 2018-2020 aldiko Plan Estrategikoan:** «Ikerketan eta berrikuntzan laguntzeko profil teknikoak txertatzea», «Ikerketan eta berrikuntzan laguntzeko plataforma estrategikoak garatzea eta prestatzea», «Marketin Plana egitea eta Institutuaren zerbitzu-zorroa saltzea» eta «Ikerketa klinikorako plataforma garatzea, eta, horretarako, enpresa-ehunari zuzendutako zerbitzuak sortzea».
- **BioCruces Bizkaian egiturek egiten duten laguntza-lana ebaluatzeko eta neurtzeko adierazle espezifikoak definitzea:** BioCruces Bizkaia ISlaren prozesu/azpiprozesu berrikusi eta eguneratuen kopurua, sortutako hobekuntza-taldeen kopurua, ezarritako hobekuntza-ekimenen kopurua, plataformek barneko eta kanpoko bezeroei emandako zerbitzuen bolumena, besteak beste.
- **Mintegiak egin dira Biodonostian, non garatutako funtzioak azaldu baititu unitate/zerbitzu bakoitzak.** Horrez gain, laguntza-egituren funtzioak hobeto betetzeko behar diren prozedurak, jarraibideak eta abar garatu dira. Biodonostia ISlaren I+G+B 2016-2020 Plan Estrategikoaren 4. ardatzari erantzuten dio jarduera horrek (etorkizuneko erronketara egokitutako erakundea). Hobekuntzen eta adierazleen ebidentzia gisa, Ekonomia eta Administrazio Unitatearen eta Giza Baliabideen zereginak Ebaluazio, Kalitate eta Zuzendaritzara birbanatu dira (Lan Arriskuen Prebentzioko funtzioak, Ikerketa Taldeen Kudeaketa). Nabarmentzekoa da 2020ko lehen hiruhilekoan ikerketa klinikorako plataformaren ziurtagiria egin nahi dela, ISO 9001:2015 arauaren arabera.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

3.4. HELBURUA

Herritarrek eta pazienteek I+G+B prozesuaren faseetan partaide eta orientatzaile gisa duten inplikazioan aurrera egitea.

3.4.1. EKINTZA. Herritarren, pazienteen (eta ordezkatzan dituzten elkarten) eta ikertzaileen arteko topaketa sustatzea.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **I+G+Bko prozesuetan sartzea:** Bioarabak aktiboki txertatzen ditu herritarrak I+G+B prozesuetan, Ikerketa Jardunaldien bidez; jardunaldi horiek hiru zutabetan banatzen dira: workshopak, Ezagutzaren Azoka (ikerketa- eta berrikuntza-proiektu berriak eta produktu berrien garapena eztabaidatzeko eta lantzeko) eta herritarrekin topaketa. 2019an, 120 pertsonak hartu dute parte herritarren ekitaldian, eta herritar batek gidatu du Bioheroiak proiektua, eta Ikerketa Batzordean. Bioarabak 2018-2019 aldian Bioheroiak proiektuan izandako parte-hartzearen ondorioz (XX. Ikerketa Jardunaldien barruan):
 - Bioarabak ikastetxeei planteatu die ekimena, azterketa pilotu gisa, eta Arabako hezkuntza-ordezkaritzari jakinarazi zaio.
 - Hezkuntza Sailak onartu du Bioheroiak proiektua sartzea eskola-ibilbidean eta/edo eskolaz kanpoko jardueretan, eta Berritzeguneen bidez hasi da prestatzaileei (bioirakasleak) prestakuntza ematen.
 - 12 ikastetxe atxiki zaizkio proiektuari 2019-2020 ikasturterako, 40 ikerketatalde inguru sortzeko (4-10 haurrez osatuak).
 - Azterketa pilotuaren emaitzak 2019ko ikerketa-jardunaldietan aurkeztu dira, eta ikasleek egindako lau ikerketa-proiektutan gauzatu dira.
- **Zenbait paziente-elkarterekin koordinatutako jarduerak:** BioCruces Bizkaian, WOKA bat egin da 2018-2022 Plan Estrategikoa egiteari dagokionez. Era berean, bilera puntualak egin dira pazienteen elkarrekin, ikertzaileekin eta institutuko langileekin, lankidetzak akordioak eta hainbat ekitaldiren ondorioz. Topaketak eta jardunaldiak webgunearen bidez zabaldu dira, eta egiten jarraitu dira ikerketa-egunekin eta ekitaldiekin lotutako bannerrak eta albisteak. Hainbat talde eta elkareren arteko topaketak, ikasleentzako jardunaldiak eta herritarrek eta elkarrekin parte hartzen duten ekitaldiak egiten dira Biodonostian. Adibidez, ASEICA-Mujer jardunaldiak eta *SRUK Cancer Networking Series* ekitaldian parte hartzea.
- **Biodonostia ISlaren RRI Batzordea eratu du 2019an:** berrikusi egin da Onkologikoko Pazienteen Batzordea 2020an ISlaren egituraren sartzeko aukera, eta, horretarako, bi bilera egin dira bi erakundearen artean 2019an. Pazienteekin eta elkarrekin egindako topaketen trazabilitatea errazteko helburuz, 2020an informazioa biltzeko prozedura bat sortu da.
- **Donostiako Sustapenarekin lankidetzan** aritu da Biodonostia, ikasleekin jarduerak egiteko Donostia WeekInn programaren esparruan –programa horren xedea da hirien etorkizuna diseinatzea, zahartzearen gaiari dagokionez–, eta publiko orokorrarentzako mahai-inguru bat egin zen, emakumeak zientzian duen egoerari

buruz (Donostia WeekInn 2019). Horrez gain, adin edo herritarren beste sektore bateko ikasleei zuzendutako hainbat jarduera egin ziren, eta topaketak egin ziren hainbat elkartetan; horien artean daude bularreko minbizi metastasikoa, Katxalin eta GENE (2. motako gerri muskuluen distrofia).

Hau da ekintza horren balioespena: AURRERATUA

3.4.2. EKINTZA. Herritarrek I+G+Bri lotutako alderdi ezberdinetan parte-hartze aktiboa izan dezaten bultzatzea:

- Mikromezenasgoa sustatzea, finantzaketa-kanpainak zabaltzea, eta abar.
- Biobankuaren jarduerak zabaltzea eta lagin-emaile bihurtzeko aukera.
- Saiakuntza klinikoetako parte-hartzea areagotzea.
- Konpromisoa hartzea antolaketa-eredu berriekin eta abarrekin.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Parte hartu da EiTB Maratoiaren urteroko edizioetan**, biriketako minbizia (2018) eta haurren minbizia ikertzearen (2019) alde egindakoetan. Bildutako diruarekin, ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdi bat egiten da urtero. 2019ko EiTB Maratoia BioCruces Bizkaia ISlaren Berripill jardunaldian jakinarazi zen –sistema sanitarioak EiTB Maratoiarekin duen lankidetzaren berri emateko egin zen jardunaldi hori–.
- **Biobankuak (BIOEF) etengabe zabaltzea jarduerak:**
 - Biobankuak bere webgunean argitaratu ditu urteko jarduera-memoria eta bere bildumei buruzko albisteak.
 - Biobankuen kongresu nazionalen parte hartzea eta prentsan agertzea Biobankuaren jarduerari buruzko informazioa: 2 agerpen (Diario Vasco eta CICnetwork).
 - Zerbitzu-gutunak bere webgunean mantentzea. 3 argitalpen egin ditu 2019an.
 - BioCruces Bizkaia aktibo mantentzen du azterketa klinikoei buruzko informazioa web-orriaren bidez. Sarbide bat sortu da webgunean, informazioa emateko eta saiakuntza klinikoetan parte hartzea errazteko pazienteei.
- **Ikerketa sanitarioko institutuek mikromezenasgoa sustatzeko mekanismoak sartzea:**
 - BioCruces Bizkaia webgunean badago atal bat I+G+B jarduerak finantzatzeko dohaintzak egiteko eta alor horretan lankidetzako ibilbide egonkor bat dago zenbait pazienteen elkarte eta herritarren talderekin. 2019an, 12 dohaintza egin dituzte webgunea bisitatu duten partikularrek.

- Biodonostian, I+G+B finantzatzeko deia egin zaie herritarrei; horretarako, proiektuetan parte hartu nahi duen finantzaketa pribatua bilatu da. Era berean, institutuaren indarreko bi plan estrategikoetan dago jasota mezenasgoa. (2016-2020 aldiko Plan Estrategikoa eta 2019-2020 aldiko Minbiziaren Plan Estrategikoa).


Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

AURRERAPEN-MAILARI BURUZKO BALIOESPEN Kuantitatiboaren Laburpena, Helburuen eta Ekintzen Arabera

Pertsonak ardatzean helburu guztiak hedatuta daude, baina garapena gainerakoetan baino txikiagoa da ardatz horretan. Ezaugarri hori nabarmenagoa da 3.1 eta 3.2 helburuetan, aurreko urteetan bezala. Helburu horiek jardueren eta pertsonen aintzatespena eta I+G+B arloko gaikuntza jorratzen dituzte.

11. Irudia.

Ekintzen aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: **PERTSONAK ARDATZA**



EZARRIA
(3,51 eta 5,00 arteko balioak)

AURRERATUA
(2,01 eta 3,50 arteko balioak)

HASIA
(0,26 eta 2,00 arteko balioak)

HASI GABEA
(0 eta 0,25 arteko balioak)

3.2.4. BALIABIDEAK ARDATZA

EAEko sistema sanitario publikoak, gainerako sistema sanitarioek bezala, egonkortasun finantzarioa eta baliabide kopuru egokia edukitzeko erronkari egin behar dio aurre. Horri gehitu behar zaio proiektuen arabera deialdiak oso gutxi egokitzen direla ikerketa-jarduera mota desberdinen baldintzetara (oinarrizko jarduera, zerbitzu sanitarioetakoa edo ezarpen-zerbitzuetakoa, ikertzaile sortu berrientzat edo ezarritako ikertzaile klinikoentzat, eta abar). Testuinguru horretan, Baliabideak ardatzaren helburu orokorra osasun-arloko I+G+Bren finantzaketa hobetzea da, eta ardatz horrek, beraz, baliabideetarako (barrikoak nahiz kanpokoak) irispidea hobetzean jartzen du arreta, I+G+B continuumari egonkortasun handiagoa emateko. Horrenbestez, estrategiak 4 helburu partzial proposatzen ditu:

H4.1 Ikerketa eta laguntza espezializatuko taldeen oinarrizko finantzaketa egonkorra ematea.

H4.2 I+G+B bideratutako barne-baliabideen helburuzko izaera sustatzea.


H4.3 Osasun Sailak ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetarako egindako zuzeneko finantzaketa berrikustea, eta sistemaren beharretarantz birbideratzea.

H4.4 I+G+B jardueretarako finantzaketa pribatuaren bolumena handitzea.

Ardatz honen helburuen arabera azterketa orokor batek erakusten du ezarrita edo aurreratuta daudela helburu bakoitzari dagozkion ekintzen % 66,6. Aurreikus daiteke ekintza aurreratu gehienak 2020. urtean ezarriko direla, baina oraindik badago hasi gabeko ekintza bat.

12. Irudia.

Aurrerapen-maila, helburu partzialen arabera: BALIABIDEAK ARDATZA



Jarraian, xehetasunez azalduko da ekintzen aurrerapena:

4.1. HELBURUA

Ikerketa eta laguntza espezializatuko taldeen oinarritzko finantzaketa egonkorra ematea.

4.1.1. EKINTZA. Oinarritzko finantzaketa egonkorren eskema zehaztea (tresnaren ezaugarriak eta diru-kopurua), sistema sanitarioaren finantzaketatik kanpoko finantzaketa gehigarriaren bidez (laguntzatik kendu gabeko baliabideekin).

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Bereizi egin dira Osakidetzak institutuei kostu-zentro gisa egotzitako kostuak** eta institutu bakoitzean Osakidetzatik jasotako dirulaguntzak.
- **Dirulaguntza izenduna berretsi da institutuen jarduerari eta, oro har, osasungintzako I+G+B zentroen jarduerari laguntzeko tresna nagusi gisa**, bakoitzaren plan estrategikoen arabera. Dirulaguntza hori 2019an ezarri da, eta Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuan agertu da. Horri esker, ikastetxeen finantzaketa modulatu ahal izango da, beren funtzioak betetzera bideratuta, Eusko Jaurlaritzaren I+Gko inbertsioa % 5 handitzeko (% 6, 2020tik aurrera) konpromiso orokorraren testuinguruan. Era berean, aukera ematen du bestelako finantzaketa gehigarri bat egiteko, sistema sanitarioaren lan asistentzialera bideratua.
- **I+Gko inbertsioa bistaratzea:** tresna hori, dirulaguntza izenduna, EAEko osasun-zerbitzuak ikerketa sanitarioko institutuetan egiten duen I+Gko inbertsioaren bistaratzeak –esplicitua eta lehen aldiz egin dena– osatzen du, bere kontabilitate-prozesuekin bat etorriz (institutuak kostu-zentrotzat hartuta). Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuan ageri da bistaratze hori, kontratu-programaren osagai gisa (ikus 4.2.2. ekintza).

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

4.1.2. EKINTZA. Osasunaren arloko ikerketa eta berrikuntza laguntzeko unitateen eta egituren oinarritzko finantzaketa egonkorra pixkanaka ezartzea, lehiatzeko moduko dimentsioa lortzen duen arte (EAEko I+G+B ekosistemaren bestelako eragileen antzera).

2019ko aurrerapenak

4.1.1 ekintzaren ondorioz, aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Oinarritzko finantzaketa 2020an ezarriko da dirulaguntza izendunaren bidez;** dirulaguntza hori Osasun Sailaren aurrekontuan jasotako dirulaguntza izendunaren bidez eta ondoriozko administrazio-jardueren bidez. Ikastetxeen lehia-finantzaketa eta Kontratu Programaren bidezko ekarpena osatzen ditu oinarritzko finantzaketa horrek.
- **Aurrekontu-zirkuituekin lotutako prozesua hobetu da;** institutu bakoitzaren beharrak planifikatzeko sistematika ikuspegi koordinatu batetikosatzea falta da (BIOEFek erreferentzia korporatibo izateagatik dituen funtzio berriekin lotuta –2.2.1 eta 2.2.4 ekintzak–).

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

4.2. HELBURUA

I+G+Bra bideratutako barne-baliabideen helburuzko izaera sustatzea.

4.2.1. EKINTZA. Erakunde sanitarioetan I+G+B jardueraren kontabilitate analitikoa ezartzea, hasieran proiektu pilotu modura.

2019ko aurrerapenak

Ekintza hori ezarritzat jo zen estrategiaren tarteko berrikuspenean. 2016-2018 aldian lantalde misto bat ezarri zen. Lantalde horrek, lehenik eta behin, sistema sanitarioaren I+Gko inbertsioa kalkulatzeko erabilitako metodologia baliozkotu zuen. Halaber, kostuen kontabilitatean ikerketa sar ote zitekeen balioesteko azterketa egin zen. Azterketa horren ondorio nagusia izan zen ezin zela kontabilitate analitikoa etorkizun hurbilean ezarri. Beraz, osasungintzako I+Gn egingo zen inbertsioa kalkulatzeko metodologiarekin jarraitzea erabaki zen, eta aldaketa batzuk egitea EAEko sistema sanitarioak ikerketa sanitarioko institutuetan egiten duen inbertsioa hobeto ikusteko. Ekintza ezarritzat jotzen da, nahiz eta ekintzaren emaitza kontabilitate analitikoko pilotu bat –hasiera batean aurreikusi zena– ezartzearen aurkakoa izan.

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

4.2.2. EKINTZA. I+G+Bren eskakizuna Kontratu Programara edo kudeaketa-eskema garrantzitsuetara gehitzeko mekanismoak diseinatzea, horrelako jarduerak aitortu, egokitu eta ebaluatu ahal izateko.

2019ko aurrerapenak

Ekintza hori 4.1.1 eta 4.1.2 ekintzekin dago lotuta, eta 2019an hasi da, aurreikusitako egutegia atzeratuta:

- **Finantzaketa motak bereizteari esker, ikerketara bideratutako partida bat sartu da berariaz kontratu-programaren barruan**, eta 2020ko aurrekontuan gauzatu da, ikerketa sanitarioko institutueta bati edo batzuei (Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia) ekarpena egiten dien erakunde bakoitzarentzat.
- **Hiru institutuek jakinarazi diete informazioa beren ESletako Zuzendaritza Batzordeei**, I+G+B jarduerari buruzkoa. ikerketa sanitarioko institutuak akreditatzeko gida berriarekin batera, horrek ahalbidetuko du adostea zer adierazle edo helburu sar daitezkeen kontratu-programaren betetze-mailaren ebaluazioan.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

4.3. HELBURUA

Osasun Sailak ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetarako egindako zuzeneko finantzaketa berrikustea, eta sistemaren premietarantz birbideratzea.

4.3.1. EKINTZA. Osasun Sailaren deialdia hobetzea, diru-kopurua apurka-apurka handituta (laguntza-baliabideetatik kendu gabe), eta sistemarentzat interesgarriak diren premia eta arloetara birbideratzea: zeharkakoak, lankidetzan, ikertzaile gazteei eta talde sortu berriei laguntzea... eta prozedurak eta izapideak sinplifikatzea.

2019ko aurrerapenak

2018an ezarri zen jada ekintza hori, eta aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **2019ko ekitaldian, Proiektu Sanitario Integratua izeneko modalitate berri bat sartu da, ikerketa sanitarioko jarduera sustatzeko lerroaren barruan**, ikerketa sanitarioko institutuen arteko lankidetzan indartzeko, interes komuneko arloren batean. Zahartzearekin lotutako proiektu bat finantzatu da.
- **Jarraipen- eta justifikazio-prozesua aldatu da**, eta hobetu egin da proiektuen kudeaketaren, aurrekontu-erabilgarritasunaren eta proiektuak gauzatzearen lerrokatzea.

-
- Eragiketaren ikuspegitik ere, **izapideak arindu dira eta data desberdinetan ebatzi dira** deialdian sartutako **laguntza-ildoak**.

Hau da ekintza horren balioespena: **EZARRIA**

4.3.2. EKINTZA. Funts bat garatzea sistema sanitarioak sortutako garapen eta berrikuntzako proiektu goiztiarren premia zehatzak finantzatzeko; continuum traslazonala egin beharreko eta/edo hirugarrenek (enpresa) garatu beharreko proiektuak izango dira horiek, eta Baliosasun Programaren barruan lagunduko dira (ikus 1.3 helburua).

2019ko aurrerapenak

Ekintza honetan, aurrerapen hauek identifikatu dira:

- Baliosasun programaren operatiboa eta orain arte sortutako ideiek eta proiektuek egin duten ibilbidea aztertu ondoren, eta proiektu batzuen fase jakin batzuei laguntzeko tresnak garatzeko aukera aztertu ondoren, mekanismo bat planteatu da, zuzkidura espezifiko batekin –deialdi formatuan egitekoa eta BIOEFek kudeatzekoa, erreferentzia korporatibo gisa–. Gaur egun, diseinu-prozesuan dago deialdia, 2020an abian egoteko, eta modu jarraituan irekita egotea aurreikusten da, hautatutako proiektuei ematen zaien laguntza azkartzeko.

Hau da ekintza horren balioespena: **HASIA**

4.4. HELBURUA

I+G+B jardueretarako finantzaketa pribatuaren bolumena handitzea.

4.4.1. EKINTZA. Saiakuntza klinikoan plangintza eta kudeaketa berrantolatzea saiakuntza klinikoak erakartzeko orduan arrakasta-ehunekoa handitzearren, pixkanaka populazioaren eta/edo BPGdren araberako ehunekora hurbil dadin.

2019ko aurrerapenak

Aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Saiakuntza klinikoan lantaldea (operatiboa) hiru aldiz bildu da**, sistemako zentroetako saiakuntza klinikoan kudeaketan irizpide komunak betetzen direla zaintzeko eta saiakuntzen kudeaketan irizpide homogeenak adosteko. Lantaldearen justifikazio-txostena egin da.
- **Saiakuntza klinikoan lantalde estrategikoa sortzea**: talde operatiboa osatzeko helburuz, diziplina anitzeko (ikertzaileak, gerenteak, kudeatzaileak, erizainak, etab.) beste talde

bat eratzea erabaki da –Osakidetza, Osasun Saila eta saiakuntzak kudeatzen dituzten erakundeetako langileak (BIOEF eta ISl)–, saiakuntza klinikoak erakartzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko makroprozesuaren alderdi orokorrak eta estrategikoak jorratzeko. Oinarrizko dokumentu bat egin da, lan-arlo zehatzak identifikatzeko. 2020ko urtarilean egin zen taldearen lehen bilera.

- **Saiakuntza klinikoan kudeaketa erabat deszentralizatzea ikerketa sanitarioko institutueta;** horrela, 2020ko urtariletik aurrera, institutu anitzeko kontratuak kudeatuko ditu BIOEFek, eta ISI bakoitzak, berriz, garatzen diren saiakuntza klinikoan betearazpena nahiz kontratuak. Gaur egun, izapidetzen ari da BIOEFen eta Bioaraba ISlaren arteko hitzarmena. Hitzarmen horren bidez, saiakuntza klinikoan kudeaketa deszentralizatuko da, eta 2020ko urtarilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.
- **Hobekuntza hauek egin dituzte erakunde kudeatzaileek,** bai antolamenduari eta kudeaketari dagokienez, bai bistaratzeari dagokionez:
 - BioCruces Bizkaian, espazio berriez hornitu da saiakuntza klinikoan plataforma, langile kopurua (erizaintzako profila) eta haien espezializazioa areagotu da, eta plataformako kideen zereginen banaketa berrantolatu da. *Study Coordinators eta Data Managers* direlakoan bidezko laguntza handitu da, profesional klinikoek saiakuntzetan parte har dezaten errazteko, eta, halaber, saiakuntza independenteek gora egin dutela egiaztatu da (sustatzailea fakultatibo bat edo institutua bera den saiakuntzetan, enpresen laguntzarik gabe): 89 azterlan kliniko berri egin dira BioCruces Bizkaia kudeatutako zentroetan.
 - Biodonostian, Donostialdeko ESlan egiten diren saiakuntza klinikoan plangintza eta kudeaketa berrantolatu dira. 2019an, Onkologiako Ikerketa klinikoko Unitate Bateratuaren hedapenerako bi jarduera egin dira Estatuan. Horiei esker, sustatzaileengana hurbildu eta onkologiako saiakuntza gehiago iritsi dira.
 - Bioaraban, saiakuntza klinikoan unitateak saiakuntza klinikoan sarrera posibleekin lotutako jarduerak egiten ditu, enprekin eta osasungintzako profesionalekin harreman berriak finkatzeko eta ezartzeko. Jarduera horien artean, enpresa-foroetara joatea nabarmendu behar da (Bio-osasunaren arloko industriaren topaketak –Akitania Berria-Euskadi–, ikastaroak –hala nola «Ebaluazio klinikoak eta merkaturatu osteko jarraipena»–, CEICA alderdi etikoei buruzko jardunaldia eta farmako-ekonomikoari buruzko jardunaldiak).
 - EAEko sistema sanitarioa Estatuko eta nazioarteko saiakuntza klinikoan sustatzaileentzako intereseko bazkide gisa ikusarazteko aukerak aztertzen ari dira BIOEFen.
 - 2019an, 118 saiakuntza kliniko hasi dira, eta azterlan klinikoetarako 981 kontratu aktibo daude, bai eta 761 protokolo aktibo ere. Horrek guztiak 1.991.046,4 €-ko kostua izan du EAEko sistema sanitario publikoarentzat.

Hau da ekintza horren balioespina: **AURRERATUA**

4.4.2. EKINTZA. Saiakuntza klinikoak egitea erraztu eta ugaritzen duten plataformak edo azpiegiturak aztertzea eta, hala badagokio, ezartzea, baita saiakuntza klinikoetarako errekrutamendua bereziki laguntzen duten irtenbideak ere.

2019ko aurrerapenak

4.4.1 ekintzan aipatutako ikerketa klinikoa laguntzeko plataformek egindako jarduez gain, honako aurrerapen hauek identifikatu dira:

- **Pazienteak errekrutatze**ko fasean dauden saiakuntza klinikoen informazio-fitxa **Onkobide tresnan ari gara sartzen (paziente onkologikoaren prozesu farmakoterapeutikorako Osakidetzan ezarritako softwarea)**. Horrela, pazienteen errekrutamendua errazten da, eta, horretarako, diagnostikoaren ezaugarrietara ondoen egokitzen den sendagai esperimentalarekin saiakuntza egiten ari diren zentroetara bideratzen dira pazienteak. Era berean, ikerketa-fasean dauden sendagai onkologikoak ikusteko eta preskribatzeko aukera eman da, pazienteak EAEko sare sanitario publikoko beste zentro batzuetan aktibo dauden saiakuntza klinikoetan sartuz.
- Era berean, **RIS3 estrategiaren esparru orokorrean, Medikuntza Pertsonalizatua LTko Onkologia azpitaldean**, onkologia medikoko sare kliniko bat sortu da (helduak), zeina aplikazio bat garatzen ari baita langile klinikoen arteko komunikazioa errazteko, saiakuntza klinikoei dagokienez. Sare horrek modu proaktiboan osatzen du Onkobide tresna, eta jarduera pilotutzat balioko du beste eremu batzuetarako, haietan ikuspegi korporatibo batetik saiakuntza klinikoak egitea indartu nahi bada.

Hau da ekintza horren balioespena: **AURRERATUA**

4.4.3. EKINTZA. Finantzaketa pribatua lortzeko mezenasgo-plan bat zehaztu eta ezartzea (helburuak, jarduteko irizpideak, arduradunak, lehentasunak eta ekintza proaktiboak).

2019ko aurrerapenak

2019an ekintza horretan egindako aurrerapenak aldeztu aurrekoak dira, baina ez dira nahikoa ekintzari ekiteko. Ikerketa sanitarioko institutuek eta BIOEFek mezenasgo- eta dohaintza-prozesuak erraztu dituzte, baina ez dago plan espezifikorik kasu guztietan. Hala ere, BioCruces Bizkaian 6 akordio sinatu dira elkarrekin dohaintzei dagokienez, eta Biodonostiak I+G+B proiektuetan parte hartzeko finantzaketa pribatua bilatzea sustatu du: 2019ko urriaren 31n, 39.544 € zituen jasoak dohaintzetan institutuak. Bioaraban, zuzenean enpresa pribatuetatik iritsi diren dohaintzak jaso dira, aldeztu aurreko bitartekaritzarik gabe, hau da, ekintzarik gabe.


Hau da ekintza horren balioespena: **HASI GABEA**


AURRERAPEN-MAILARI BURUZKO BALIOESPEN Kuantitatiboaren Laburpena, Helburuen eta Ekintzen Arabera

Baliabideak ardatzean, helburu guztiak hedatuta daude, baina garapen-maila aldakorra da. Ekintzei dagokienez, 2 (% 22,2) ezarriak daude, 4 (% 44,4) aurreratuak daude, 2 (% 22,2) hasiak daude eta 1 (% 11,1) dago hasi gabe.

13. Irudia.

Ekintzen aurrerapen-maila helburu partzialen arabera: **BALIABIDEAK ARDATZA**





4. ONDORIOAK

4. ONDORIOAK

Sistema sanitario publikoaren barruan eta haren zerbitzura eta Euskadiko garapen sozioekonomikorako funtsezko pieza den berrikuntzako EAEko ekosistema baten testuinguruan garatzeko berariaz diseinatutako lehen estrategia da 2020rako Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia. Estrategiak asmo handiko ikuspegia eta misioa proposatzen ditu, eta hori betetzeko 57 ekintza zehaztu ditu, lau ardatzetan antolatuta, bakoitzak bere helburu estrategiko eta partzialekin. Estrategia hau lehengoa denez, EAEko sistema sanitarioan I+G+B arloko jarduera indartzeko beharrezkoak diren egitura, prozedurak eta baliabideak definitzean eta ezartzean oinarritu dira ahaleginak.

OIBE 2020 estrategiak honako hau adierazten du hitzez hitz: «Estrategia pixkanaka hedatuko da». Abian jarri zenetik 4 urte igaro direnean, estrategiak hedapen-aurrerapen handia dauka; izan ere, ekintzen ia % 95 (% 94,7) daude abian –modu nahikoa homogeneoan ardatz eta helburu guztietan–, eta ekintzen % 75 baino gehiago hedapen-fase aurreratuan daude edo dagoeneko ezarrita:

- Ezarriak daude helburuen % 10,5 eta ekintzen % 26,3.
- Aurreratuak daude helburuen % 68,4 eta ekintzen % 49,1.
- Hasiak daude helburuen % 21,1 eta ekintzen % 19,3.
- Ez dago hasi gabeko helbururik, baina hasi gabe daude ekintzen % 5,3.

Tarteko berrikuspenaz geroztik (2018), ekintzen % 33 aurreratu dira, hasi gabe zeuden hiru ekintza barne. 2020. urterako xedeak erakusten du aurrerapen-eredua behar adina egituratuta eta sistematizatuta dagoenez, aurreikus daitekeela, ustekabeko zailtasunak gertatzen badira izan ezik, ekintza aurreratuak ezarriak egongo direla 2020. urtean. Ekintza hasiek arreta berezia eskatuko dute kasu batzuetan, ezartzetik hurbil egon daitezen estrategiaren indarraldiaren amaieran. Hamar ekintzatan egin da aurrerapen hori.

Kualitatiboki, aurrerapenaren ikuspegi orokor batek indargune hauek identifikatzen ditu, batzuk estrategiaren erdialdean jada lortutakoak:

- I+G+B erakundeen mapa egituratua, jarduera gehienetan irudi korporatibo, esparru eta irizpide komunak dituen.
- Jardueren sistematizazioa eta koordinazioa (adibidez: Fundanet, Lantalde –LT– eta abarren erabilera).
- Berrikuntza irekiaren kudeaketa (2016an, Baliosasun programa abiarazi zen, 2014-2015 aldirako Berrikuntzarako Ekintza Plana oinarri hartuta. Plan horrek kudeaketa-eredu korporatiboa jasotzen du, eta hor sartzen dira, besteak beste, berrikuntza-jardueren erregistroa –ez zena sistema mailan egiten– eta haien transferentzia; eta Innosasun programa sistematizatu zen).

- Aurrerapenak informazio-sistemen integrazioan eta aprobetxamenduan.
- Zeharkako lehen ikerketa-programak (ez institutu bakoitzaren planak), hirugarrenak barne (RIS3).
- I+Gko inbertsioa handitzea eta ikusaraztea.

Xehetasun handiagoz, lau helburu estrategikoetako bakoitzaren gertakari nagusiak adierazi dira.

Herritarren osasuna hobetzea eta aberastasuna sortzen laguntzea xede duten I+G+b jardueren eragina handitzea

- Ebaluazio- eta kudeaketa-prozedurak sistematikoki erabiltzea I+G+bko zentrozen sarean (kasu askotan komunak edo partekatuak; beste batzuetan, ezarpen-fasean); 2019an egindako aurrerapenen artean daude Eurosasun eta Baliosasun programetako prozedurak eguneratzea; EAEko sistema sanitario publikoaren berrikuntza-proiektuetarako *ex ante* balorazio-tresna eguneratzea (Medtech ekimena, Innosasun programa) eta EAEko Sistema Sanitario Publikoaren IKT Ekimenak Lehenesteko Matritzea eguneratzea.
- Zaintza-sistema bat ezartzea sistema mailan.
- Biozientziak-osasuna eremuan bultzatutako sektore arteko lankidetzako eta lankidetzako publiko-pribatuko dinamika jarraitua RIS3 Euskadi estrategian. Hor sartzeko dira arloko lidergoa (Basque Health marka), industriarekin lankidetzako areagotzea, Lantaldeek I+Gko programak eta/edo ekintza-planak elkarlanean diseinatzea, eta aldebiko ekimenak ezartzea Ikerbasque, Donostiako Sustapena, Lanbide Heziketa eta beste erakunde batzuekin.
- Antolaketa- edo kudeaketa-berrikuntzak praktika klinikoan sartzeko, edo Innosasunetik edo antolaketa-berrikuntzako Europako proiektuetatik praktika klinikora eramateko prozedurak edo zirkuituak indartzea eta/edo hobetzea.

Aurrera egitea ikerketa eta berrikuntzako jardueren asistentzia- eta irakaskuntza-lanarekin integratzeko bidean

- I+G+b erakundearen mapa, funtzio berezituak, irizpide partekatuak eta sareko funtzionamendua dituenak. Aribideko dekretu arautzailea.
- Gero eta handiagoa da erakundearen arteko lankidetzako eta koordinazioa: lankidetzako lehen ikerketa-programak (hirugarrenak barne) eta lan-batzordeen sistematika, lehentasunak ezartzea eta/edo koordinatzea; eta institutuen eta zerbitzu-erakundearen arteko interakzioa.
- 20 lantalde aktibo baino gehiago egotea (gehi bat amaituta eta bestea latentea), pertsonen araudiari buruzko bat barne.

-
- Informazio-sistemen erabilera homogenea eta/edo partekatua indartzea, I+G+b kudeaketa integraleko tresnan (Fundanet) hobekuntzak ezartzeak eta modulu berriak eskuratzeak erraztuta.

Sistema sanitarioko profesionalek ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak egitea sustatzea eta pazienteen eta herritarren inplikazioan aurrerapausoak egitea

- I+G+b beharren (profilak eta egitura) plangintza partekatua egiten hasia, Giza Baliabideak LT berriaren aurrerapenei lotuta.
- Aurrerapen apalak egin dira zenbait gairi dagokienez: I+G+b metrika eta hura zerbitzuetako erakundeen adierazleen zati gisa erabiltzea; I+G+b jardueretan jardutea; laguntza-zerbitzuak ebaluatzea; eta herritarren inplikazioa.

Osasun-arloko ikerketa eta berrikuntzaren finantzaketa hobetzea, barruko zein kanpoko baliabideak erabiliz

- Urteko I+G inbertsioa haztea eta Osasun Sailaren deialdia hobetzea (operatiboan eta helburuetarako orientazioan –proiektu integratuak, RIS3 interes bereziko ekintzak–).
- Ikerketa sanitarioko institutuen oinarritzko finantzaketa-mekanismoa ezartzea eta I+G inbertsioa Kontratu Programan bistaratzea (kudeaketa integratuan eta I+G+b jardueraren kalitate-eskakizunean aurrera egiteko).
- Baliosasun Funtzaren ezarpena aztertzea, sistema sanitariotik sortutako teknologia-garapeneko eta berrikuntzako (teknologikoa, antolamendukoa) proiektuak egokiago laguntzeko.
- Onkologiako saiakuntza klinikoetan pazienteak errekrutatzeak hobekuntzak egitea, Onkobide tresnako informazio berriaren bidez eta, bereziki, helduen onkologia medikoko lankidetzaren sare baten bidez, zeinak pilotu gisa balioko baitu beste eremu batzuetan.

2020RAKO XEDEAK


Orain arte lortutako aurrerapena kontuan hartuta, helburu hauek ezarri dira estrategia hedatzeko azken urterako:

- Hasiak egotea ekintzen % 100 (hasi gabeko ekintzarik ez).
- Ekintzen % 90 inguru aurreratuak edo ezarriak egotea.

Horretarako, ahaleginak egin beharko dira ekintza hauetan aurrera egiteko:

- E1.2.2: Prospektiba-gaitasunak (esploratzea, identifikatzea, testuinguruan kokatzea/egokitzea) garatzea sistema sanitarioaren eraldaketa zein etorkizuneko zerbitzuen diseinua elikatzeke.
- E1.2.3: Osteba teknologia sanitarioen ebaluazioko zerbitzurako ekintza-plana diseinatzea, haren I+G+B continuumeke rola eta enpresa-sektorearekiko interakzioa indartzeko.
- E1.5.1: Sistema sanitarioaren beharren edo erronken inguruan Berrikuntzako Erosketa Publikorako tresna ezartzea.
- E1.5.2: Berritasunak sartzeko, lehen erreferentzia hornitzeko zein egoera errealean ebidentzia sortzeko mekanismoak laguntzea.
- E2.2.6: Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren funtzionamendua aldatzea, haren emaitzak zein erabiltzen duten pertsona eta erakundeen pertzepzioa hobetzeko.
- E2.4.1: Jabetza intelektualaren arau-esparrua garatzea eta emaitzak ustiatzea.
- E3.1.1: Ikerketa- eta berrikuntza-merezimenduen eskakizuna handitzea eta merezimendu horiek aintzat hartzea pertsonen irispide eta aurrerapen profesionalean.
- E3.1.4: Prospektiba eta plangintza sartzeko egituraren, profilen eta abarren beharrak sistema sanitarioke ikerketa- eta berrikuntza-jardueretara egokitzeke.
- E3.1.5: Ikerketa eta berrikuntzako proiektu eta lan-ibilbide onenak aitortzeko planak ezartzea, baita arlo horretan gehien nabarmentzen diren zentroeke dagokienez ere.
- E3.2.1: Sistema sanitario osoan eginike ikerketaren eta berrikuntzaren arloke prestakuntza-jarduerak koordinatzea eta EAEke beste eragile batzuen prestakuntza-baliabideak aprobetxatzea (batzea).

-
- E3.2.3: Ikerketa-egonaldien programa bat egitea, sistemaren beharrak lehenetsita, eta, hala behar bada, bestelako zentro edo sistema sanitarioekin akordioak egitea.
- E4.2.2: I+G+Bren eskakizuna Kontratu Programara edo kudeaketa-eskema garrantzitsuetara gehitzeko mekanismoak diseinatzea.
- E4.3.2: Funts bat garatzea sistema sanitarioak sortutako garapen eta berrikuntzako proiektu goiztiarren premia zehatzak finantzatzeko; proiektu horiek continuum traslazionale egin beharko dute eta/edo hirugarrenekin (enpresa) garatu beharko dira, Baliosasun Programaren barruan lagunduta.
- E4.4.3: Finantzaketa pribatua lortzeko mezenasgo-plan bat definitu eta ezartzea (helburuak, jarduteko irizpideak, arduradunak, lehentasunak eta ekintza proaktiboak).



5. ERANSKINAK

5. ERANSKINAK

1. ERANSKINA:

OIBE 2020 ESTRATEGIAREN JARRAIPENEAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN ZERRENDAA

- Osasun Saila - Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza
- Osakidetza
- BIOEF
- Bioaraba
- Biocruces Bizkaia
- Biodonostia
- Kronikgune

2. ERANSKINA:

EKINTZEN ZERRENDAA, ARDATZEN ETA HELBURUEN ARABERA

1. ARDATZA: ERAGINA

1. HELBURUA: I+G+B-KO JARDUEREN ERAGINA HANDITZEA, HERRITARREN OSASUNA HOBETZEKO ETA ABERASTASUNA SORTZEN LAGUNTZEKO.

1.1. HELBURUA

Ikerketa eta berrikuntzaren ebaluazio-prozesuak (*ex ante* eta *ex post*) garatzea, ikerketa/berrikuntza mota bakoitzari eta ikuspegi traslazonalari egokituta, eta sistema sanitarioaren premietara bideratuta.

1.1.1. EKINTZA. Sortzen ari diren ikerketa-lehentasunak eta berrikuntza-proiektuak zehaztu eta aukeratzeko prozedura(k) gehitzea.

1.1.2. EKINTZA. Ikerketa- eta berrikuntza-proiektuen ebaluazioa sistematizatzea:

- *Ex ante*, I+G+B proiektuen barneko deialdi eta proposamenetan.
- *Ex post*, lortutako emaitzen eta eraginen gainean, eta/edo proiektua jarraitzeko aukeraren gainean (eskalatzea, ondorengo proiektu bat egitea...).

1.2. HELBURUA

Prospektibari laguntzea eta teknologia eta prozedura sanitarioen ebaluazioa sistema sanitarioaren premietara egokitzea, eta horien erabilpena hobetzea, erabakiak hartzeko eta betearazteko.

1.2.1. EKINTZA. I+G+B continuumarekin lotutako teknologia-zaintzarako sistema bat zehaztu eta ezartzea.

1.2.2. EKINTZA. Prospektiba-gaitasunak (esploratzea, identifikatzea, testuinguruan kokatzea/egokitzea) garatzea sistema sanitarioaren eraldaketa zein etorkizuneko zerbitzuen diseinua elikatzeko.

1.2.3. EKINTZA. OSTEBA teknologia sanitarioen ebaluazioko zerbitzurako ekintza-plana diseinatzea, I+G+B continuumeko eginkizuna eta enpresa-sektorearekiko interakzioa indartzeko (ikus 1.4 helburua).

1.2.4. EKINTZA. Gidak ezartzen eta/edo eguneratzen laguntzea (jardunbide klinikoari buruzkoak, zer ez den egin behar jakiteko gomendioak, eta abar.), baita ebidentzian oinarritutako zerbitzuak hornitzen ere.

1.3. HELBURUA

Sistema sanitarioaren I+G+B jardueraren emaitzen balioztapena erraztea, eta horien ezarpena eta/edo transferentzia bultzatzea.

1.3.1. EKINTZA. Baliosasun programa hedatzea honako hau lortzeko:

- Berrikuntzaren kudeaketa sistemikoa sistema sanitarioan ezartzea.
- I+G+B garapen goiztiarrak berariazko funts batekin laguntzea.
- Kostuaren arabera eraginkorrak izan diren edo balioa sortu duten berrikuntza-proiektuen hedapena edo eskalatzea erraztea (korporatiboki ezartzea sistema sanitarioan).
- Hirugarrenekin sistema sanitarioan sortutako (edo batera sortutako) I+G+B emaitzak esploratzea; baliabide zein gaitasun handiagoak bideratzea emaitzak transferitzeko (TTO) eta ustiatzeko jardueretara, eta «brokerage» ekitaldietan (sustatzaileek eta inbertsiogileek parte hartuta) era proaktibo batez jokatzeko izan litezkeen berrikuntzak saltzeko.

1.4. HELBURUA

Zientzia-teknologiako enpresa eta eragileekin lankidetzak areagotzea, sistema sanitario erreferentziako bazkide bihurtzeko.

1.4.1. EKINTZA. Innosasun Programa garatzea lotura duten enpresek eta erakundeek agertutako premiei erantzuteko.

1.4.2. EKINTZA. Industriarekiko interakzioa areagotzea, hauen bitartez:

-
- Esparru-akordioak edo aliantza estrategikoak eginez (Bioklusterrekin⁸, banako enpresekin, enpresei laguntzeko erakundeekin, eta abar).
 - Elkar ezagutzeko jardunaldiak egitea, lankidetzak-aukerak zehaztuz, eta jarduketak edo ekimenak elkarrekin diseinatzuz.

1.5. HELBURUA

Berrikuntzen garapena bultzatzea, sistema sanitario horien bultzatzailea izanik.

1.5.1. EKINTZA. Sistema sanitarioaren premien edo erronken inguruan Erosketa Publiko Berritzaileko tresna ezartzea.

1.5.2. EKINTZA. Berrikuntzak sartzeko, lehen erreferentzia hornitzeko zein egoera errealean ebidentzia sortzeko mekanismoak laguntzea.

1.6. HELBURUA

Ikerketa eta berrikuntzarekin lotutako apustu komunak zehaztea, R/S3 Estrategiaren esparruan.

1.6.1. EKINTZA. EAEko Espezializazio Adimentsuaren R/S 3 Estrategiaren deskubrimendu ekintzaileko prozesuaren buru izatea biozientziak-osasuna binomioan, eta dagokion pilotatze-taldea koordinatzea:

- EAEko ekosistemako beste eragile batzuek ikerketa eta berrikuntzako agendetan parte har dezaten bultzatuz (ikus 2.1 helburua).
- Beste erakunde batzuen gaitasunak biozientziak-osasunaren esparruko bazkide eta finantzatzaile gisa gehituz.

1.6.2. EKINTZA. Baterako jarduketak zehaztu, diseinatu eta garatzea biozientziak-osasunaren esparrua handitu dadin, eta erakunde arteko zein publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzako life science berrikuntza-ekosistema (klusterizazioa) sendotzea.

1.6.3. EKINTZA. Aldebiko ekimen espezifikokoak ezartzea, hala nola talentua erakartzea eta emaitza bibliometrikoak zabaltzea Ikerbasquerekin.

2. ARDATZA: INTEGRAZIOA

2. HELBURUA: IKERKETAKO ETA BERRIKUNTZAKO JARDUERA ASISTENTZIA-ETA IRAKASKUNTZA-LANAREKIN INTEGRATZEKO AURRERA EGITEA.

2.1. HELBURUA

Sistemaren behar eta gaitasun nagusien inguruan ikerketa- eta berrikuntza-agendak garatzea.

⁸ Basque Health Clusterri izena aldatzea.

2.1.1. EKINTZA. Datozen urteetarako ikerketa- eta berrikuntza-agendak aukeratzea gai eta patologia interesgarriei buruz (diabetesa, onkologia, kardiobaskularra, etab.), eta sistemaren zeharkako premiei buruz (medikuntza pertsonalizatua, datu handiak, e-osasuna, zahartzea, zerbitzu sanitarioak, inplementazioa, etab.).

2.1.2. EKINTZA. Ikerketa- eta berrikuntza-programak zehaztea hautatutako agenden inguruko azterketa integrala eginez.

2.2. HELBURUA

Ikerketaren eta berrikuntzaren plangintza-, kudeaketa- eta gobernantza-eredua hobetzea ikuspegi sistemiko eta integratu baten bidez.

2.2.1. EKINTZA. Dauden egituren (I+G+B eta kudeaketa) egitura-, erantzukizun- eta eginkizun-mapa berria komunikatzea.

2.2.2. EKINTZA. ESlen gobernantza-organoetan ikerketa- eta berrikuntza-erantzukizunak esleitzea, eta koordinatzaileen edo berrikuntza-erreferenteen figura bultzatzea.

2.2.3. EKINTZA. Ahaleginak lehenetsi eta koordinatzeko batzordeak sortzea, tartean dauden erakunde ezberdinetako partaideekin.

2.2.4. EKINTZA. Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (BIOEF) eguneratzea, eta haren baliabideak etapa berri honetarako egokitzea.apa.

2.2.5. EKINTZA. I+G+B egituren eta haien kudeaketaren epe ertaineko eboluziorako ibilbide-orri partekatua zehaztea.

2.2.6. EKINTZA. *Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren* funtzionamendua aldatzea, haren emaitzak zein erabiltzen duten pertsona eta erakundeen pertzepzioa hobetzeko.

2.3. HELBURUA

Informazio-sistemen aprobetxamendua eta iturri ezberdinetako datuen erabilera hobetzea.

2.3.1. EKINTZA. Ikerketarako eta osasungintzako erabakiak hartzeko, askotariko iturrien datuetarako sarbidean eta interakzioan aurrera egitea (datu-baseak, informazio klinikoa, biobankua, erregistroak, datu omikoak...).

2.3.2. EKINTZA. Populazioaren osasun-arloko emaitzen datu-baseak garatzea (onkologia, patologia kardiobaskularrak, haurren osasuna, osasun publikoa eta bestelako eremu interesgarriak).

2.3.3. EKINTZA. Informazio-sistemak erabiltzea I+G+Bekin lotutako prozesuak harmonizatzeko eta sinplifikatzeko.

2.3.4. EKINTZA. I+G+B osoki kudeatzeko sistema sanitario osorako dagoen tresnaren eragiketa hobetzea (BIOEFek kudeatzen du):

-
- Berrikuntza kudeatzeko modulu berria sartzea.
 - Osasungintzako profesionalek eta ikertzaileek horretara sartu eta modu homogeneoan erabiltzeko erraztasuna ematea, baita sistematik informazioa ateratzeko ere gizarteak oro har ezagut dezan.

2.4. HELBURUA

Arau- eta lege-esparrua egokitzea I+G+B arloa sisteman txertatzeko.

2.4.1. EKINTZA. Jabetza intelektualaren arau-esparrua garatzea eta emaitzak ustiatzea.

2.4.2. EKINTZA. Pertsonen buruzko araudien garapenean aurrera egitea.

2.4.3. EKINTZA. Hirugarrenetik harremanetarako garrantzitsuak diren araudiak egokitu edo garatzea.

2.5. HELBURUA

Sistema ireki, konektatu eta nazioartekotu baterantz aurrera egitea.

2.5.1. EKINTZA. Lankidetzak-akordioak garatzea osasunaren arloko bestelako ikerketa- eta berrikuntza-sistemekin

2.5.2. EKINTZA. Eurosasun programa ezartzea, eta Europako proiektuen esparruan berariazko lan-plana zehaztea sistema sanitarioaren Europako presentzia eta emaitzak handitzeko.

2.5.3. EKINTZA. Osasungintzako profesionalek eta ikertzaileek Estatu eta nazioarteko ikerketa- eta berrikuntza-sareetan parte har dezaten erraztea.

3. ARDATZA: PERTSONAK

3. HELBURUA: SISTEMA SANITARIOKO PROFESIONALEK IKERKUNTZAREN ETA BERRIKUNTZAREN ALORREKO JARDUERAK EGIN DAITEZEN SUSTATZEA ETA PAZIENTEEN ETA HERRITARREN INPLIKAZIOA AREAGOTZEA.

3.1. HELBURUA

I+G+B jardueren errekonozimendua areagotzea eta lanbide-ibilbideen garapena erraztea.

3.1.1. EKINTZA. Ikerketa eta berrikuntzako merezimenduen eskakizuna areagotzea –askotariko ekarpenak kontuan hartuta (ikertzaileek, laguntzaileek, berritzaileek eta abarrek egindakoak)–, eta merezimendu horiek aintzat hartzea pertsonen lan-sarbide eta -aurrerapenean.

3.1.2. EKINTZA. Kudeatzeko prozesu edo mekanismoetan zientzia-ekoizpeneko adierazleak eta bestelakoak (I+G+B) gehitzea, eta I+G+Ba erakundeen «ekoizpen-ildotzat» hartzea.

3.1.3. EKINTZA. I+G+B jardueretan aritzeko erraztasuna ematea, eta esparru orokor koherenteak garatzea jarduera horiek egitea errazteko eta horrelako jardueren jarraipena egiteko.

3.1.4. EKINTZA. Prospektiba eta plangintza sartzea egituraren, profilen eta abarren premiak sistema sanitarioko ikerketa- eta berrikuntza-jardueretara egokitzeko.

3.1.5. EKINTZA. Ikerketa eta berrikuntzako proiektu eta lanbide-ibilbide onenak aitortzeko planak ezartzea, baita arlo horretan gehien nabarmentzen diren zentroei dagokienez ere.

3.2. HELBURUA

Sistema sanitarioan sartzen diren pertsonen ikerketaren eta berrikuntzaren arloko gaikuntza areagotzea, baita etengabeko prestakuntza ere.

3.2.1. EKINTZA. Sistema sanitario osoan egindako ikerketaren eta berrikuntzaren arloko prestakuntza-jarduerak koordinatzea eta EAEko beste eragile batzuen (BERCak, ikerketa-zentro korporatiboak, unibertsitateak...) prestakuntza-baliabideak aprobetxatzea (batzea).

3.2.2. EKINTZA. Osasungintzako prestakuntza espezializatuaren aldia zehar ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak, ikertzeko prestakuntza espezializatuaren osteko kontratuak (BAME, BAFE...) bultzatzea, baita ikertzaile juniorren jarraipena eta tutoretza ere.

3.2.3. EKINTZA. Ikerketa-egonaldien programa bat egitea, sistemaren premiak lehenetsita, eta bestelako zentro edo sistema sanitarioekin akordioak egitea (Estatuan eta nazioartean).

3.2.4. EKINTZA⁹. Lankidetzaren areagotzea eta trukeak sustatzea unibertsitateekin orokorrean eta beste erakunde batzuekin, diziplina ezberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa laguntzarren.

3.2.5. EKINTZA. Ikerketaren eta lotutako prestakuntzaren arloko lankidetzaren handitzea Euskal Herriko Unibertsitatearekin.

3.3. HELBURUA

Ikerketa- eta berrikuntza-komunitateak jasotzen duen laguntza hobetzea, bai metodologiaren/teknikaren aldetik, bai administrazioaren aldetik.

3.3.1. EKINTZA. Sistema sanitarioko I+G+B lagundu eta kudeatzeko langileen oinarritzko zuzkidura denboran definitu eta planifikatzea.

⁹ Jarraipenean ikusitako errealitatera egokitzeko aldatua.

3.3.2. EKINTZA. BIOEFeko langileak esleitzea ikerketa-zentro edo -talde zehatzetan, laguntza pertsonalizatuagoa eman dezaten eta zerbitzu ona bermatzeko, betiere kudeaketa-tresnen hobekuntzek lagunduta (ikus 2.3 helburua).

3.3.3. EKINTZA. Eragile erabiltzaileei laguntzeko egiturek zer zerbitzu ematen dituzten argi zabaltzea, baita zer solaskiderengana jo dezaketen ere (hainbat bide erabiliz: web-orria, informazio-saioak...).

3.3.4. EKINTZA. Egiturek emandako laguntza-lana ebaluatzea, eta itogune nagusietan adierazleak eta hobetzeko helburuak ezartzea.

3.4. HELBURUA

Herritarrek eta pazienteek I+G+B prozesuaren faseetan partaide eta orientatzaile gisa duten inplikazioan aurrera egitea.

3.4.1. EKINTZA. Herritarren, pazienteen (eta ordezkatzan dituzten elkarten) eta ikertzaileen arteko topaketa sustatzea.

3.4.2. EKINTZA. Herritarrek I+G+Bri lotutako alderdi ezberdinetan parte-hartze aktiboa izan dezaten bultzatzea: Mikromezenasgoa sustatzea, finantzaketa-kanpainak zabaltzea, eta abar.

- Biobankuaren jarduerak zabaltzea eta lagin-emaile bihurtzeko aukera.
- Saiakuntza klinikoetako parte-hartzea areagotzea.
- Konpromisoa hartzea antolaketa-eredu berriekin eta abarrekin.

4. ARDATZA: BALIABIDEAK

4. HELBURUA: MOSASUN-ARLOKO IKERKETAREN ETA BERRIKUNTZAREN FINANTZAKETA HOBETZEA, BAI BARNEKO ETA BAI KANPOKO BALIABIDEEN BITARTEZ.

4.1. HELBURUA

Ikerketa eta laguntza espezializatuko taldeen oinarritzko finantzaketa egonkorra ematea.

4.1.1. EKINTZA. Oinarritzko finantzaketa egonkorraren eskema zehaztea (tresnaren ezaugarriak eta diru-kopurua), sistema sanitarioaren finantzaketatik kanpoko finantzaketa gehigarriaren bidez (laguntzatik kendu gabeko baliabideekin).

4.1.2. EKINTZA. Osasunaren arloko ikerketa eta berrikuntza laguntzeko unitateen eta egituren oinarritzko finantzaketa egonkorra pixkanaka ezartzea, lehiatzeko moduko dimentsioa lortzen duen arte (EAEko I+G+B ekosistemaren bestelako eragileen antzera).

4.2. HELBURUA

I+G+Bra bideratutako barne-baliabideen helburuzko izaera sustatzea.

4.2.1. EKINTZA. Erakunde sanitarioetan I+G+B jardueraren kontabilitate analitikoa ezartzea, hasieran proiektu pilotu modura.

4.2.2. EKINTZA. I+G+Bren eskakizuna Kontratu Programara edo kudeaketa-eskema garrantzitsuetara gehitzeko mekanismoak diseinatzea, horrelako jarduerak aitortu, egokitu eta ebaluatu ahal izateko.

4.3. HELBURUA

Osasun Sailak ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetarako egindako zuzeneko finantzaketa berrikustea, eta sistemaren premietarantz birbideratzea.

4.3.1. EKINTZA. Osasun Sailaren deialdia hobetzea, diru-kopurua apurka-apurka handituta (laguntza-baliabideetatik kendu gabe), eta sistemarentzat interesgarriak diren premia eta arloetara birbideratzea: zeharkakoak, lankidetzan, ikertzaile gazteei eta talde sortu berriei laguntzea... eta prozedurak eta izapideak sinplifikatzea.

4.3.2. EKINTZA. Funts bat garatzea sistema sanitarioak sortutako garapen eta berrikuntzako proiektu goiztiarren premia zehatzak finantzatzeko; continuum traslazonala egin beharreko eta/edo hirugarrenek (enpresa) garatu beharreko proiektuak izango dira horiek, eta Baliosasun Programaren barruan lagunduko dira (ikus 1.3 helburua).

4.4. HELBURUA

I+G+B jardueretarako finantzaketa pribatuaren bolumena handitzea.

4.4.1. EKINTZA. Saiakuntza klinikoaren plangintza eta kudeaketa berrantolatzea saiakuntza klinikoak erakartzeko orduan arrakasta-ehunekoa handitzearen, pixkanaka populazioaren eta/edo BPGdren araberrako ehunekora hurbil dadin.

4.4.2. EKINTZA. Saiakuntza klinikoak egitea erraztu eta ugaritzen duten plataformak edo azpiegiturak aztertzea eta, hala badagokio, ezartzea, baita saiakuntza klinikoetarako errekrutamendua bereziki laguntzen duten irtenbideak ere.

4.4.3. EKINTZA. Finantzaketa pribatua lortzeko mezenasgo-plan bat zehaztu eta ezartzea (helburuak, jarduteko irizpideak, arduradunak, lehentasunak eta ekintza proaktiboak).

3. ERANSKINA: METODOLOGIA

*OIBE2020*ren 2019ko jarraipen-txosten honek urte hau soilik hartzen du. Azken datuak eta ebidentziak 2019ko azaro-abenduan bildu dira.

Jarraian daude zehaztuta txostena eraikitzeke erabili diren alderdi metodologikoak:

- *Ad hoc* galdetegiak egin dira ikerketa sanitarioko institutu bakoitzerako eta Kronikgune, BIOEF eta Osakidetzarako.
- Galdetegietan emandako informazioa baliozkotzeko bilerak egin dira.
- Datu-iturri nagusiak I+G+B osoki kudeatzeko tresna (Fundanet) eta ikerketa sanitarioko institutuak izan dira.
- *OIBE 2020* estrategia balioesteko sistema eguneratu da, objektibatzeke moduan definitzeko ardatzen, helburuen eta ekintzen aurrerapen-maila.
- Jarraipen-batzorde bat eratu da 2019rako jarraipena errazteko.

BALIOESPEN-SISTEMA DISEINATZEAN

Balioespen-sistemaren helburua 2020. urterako Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiak bere maila desberdinetan (jarduketa-ardatzak, helburu partzialak eta ekintzak) izandako aurrerapena modu objektiboan azaltzea da.

Balioespen-sistema eraikitzeke erabili den metodologia behetik gora egituratzen da, hau da, tartean sartutako erakundeek ekintza bakoitzean egindako aurrerapena hartzen da abiapuntutzat eta ekintza-mailan, helburu espezifikoan eta jarduketa-ardatzetan lortutako balioespena gehitzen da. Ekintza bakoitzean tartean sartuta dauden erakundeen aurrerapena 1etik 5era balioesten da. Balioespen hori ezartzeko, kontuan hartu behar da bi ekintza mota daudela:

- **Etengabeko ekintzak.** Estrategia egikaritzen den aldi osoan modu sistematikoan eta etengabe garatzen diren edo garatu beharko liratekeen ekintzak dira. Halakoetan, ekintzaren aurrerapenaren balioespena ezartzeko, 2 irizpide hartu dira kontuan:
 - **Prozedura.** Irizpide horrekin kontuan hartzen da erakunde bakoitzaren jardura modu ordenatuan garatzen dela, aurreikusitako emaitzak lortzea ahalbidetuko duen jarduketa-logika bati jarraikiz. Irizpide hori hiru etapatan sailkatu da
 - Jarduera hasia, baina zehaztutako prozedurarik gabea.
 - Jarduera hasia, zehaztutako prozedurekin.
 - Jarduera hasia, prozedura zehaztu eta ezarriekin


- **Erregularitasuna.** Jarduerak aldizka egiten dira eta ahalbidetzen da emaitzak modu sistematikoan lortzea. Irizpide hori hiru etapatan sailkatu da:

- Jarduera puntuala.
- Jarduera planifikatua, baina modu erregularrean egikaritzen ez dena.
- Modu erregularrean egikaritutako eta planifikatutako jarduera.

• **Ekintza espezifikoak.** Jarduera behin bakarrik errepikatzen duten eta araudi, plan, ibilbide-orri, programa, egitura funtzional bat eta abar eginez amaitzen diren ekintzak dira. Kasu horretan, ekintzan egindako aurrerapenaren balioespena honela ezartzen da:

1. Hasitako ekintza, baina gaur egun geldirik dagoena berezko edo besteren arrazoiengatik.
2. Garatzen ari den ekintza.
3. Berezko egiaztapenak edo ikuskapenak egiteko fasean dagoen ekintza (ekintzaren arduraduna).
4. Baliozkotzeko/berresteko fasean dagoen ekintza.
5. Baliozkotutako/amaitutako ekintza.

Grafikoki, erakunde bakoitzaren balioespena ondorengo matrizean irudikatuko dugu.



Bi kasuetan, 0 balioespena dago hasi gabe dauden ekintzetarako.

Ekintza baten aurrerapen-egoera balioesteko, ekintza egikaritzeko tartean sartuta dagoen erakunde bakoitzaren informazioa gehitu da. Ildo horretan, tartean sartutako erakunde guztien jarduera ez da neurri berean hartu aintzat, baizik eta haztapen batzuk ezarri dira, eta haztapen horien bitartez, erakundeek ekintzaren garapenean izan duten partaidetza islatu nahi da.

Haztapena honela ezarri da:

1. Lehenik eta behin, 4 bloke ezarri dira erakundearen tipologiaren arabera:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.
- BIOEF.
- Osasun Ikerketa Institutuak eta/edo Kronikgune.

Bloke bakoitzaren haztapena ekintzan parte hartu duten blokeen kopuruarekiko proportzionalki hartu da aintzat (1/ekintzan parte hartu duten blokeen kop.). Beraz, 4 blokek parte hartu badute, 1/4ko haztapena hartu da aintzat, 3 blokek parte hartu badute, 1/3 eta horrela besteekin ere.

Osasun Ikerketa Institutuen eta/edo Kronikguneren blokearen kasuan, haztapen gehigarria ezarri da, ekintzan tartean sartuta dagoen erakunde bakoitzaren antzinasunera egokituta (erakundearen egiaztapen-datatik aurrera). Horrek esan nahi du Institutu batzuentzat (edo Kronikgunerentzat) balioespena hasieran ezarritakoa (1/4, 1/3, eta abar) baino handiagoa edo txikiagoa izan daitekeela.

Honako hauek dira erakundeentzat aintzat hartutako antzinasunak:

ERAKUNDEA	ANTZINATASUNA
Bioaraba	2 urte
BioCruces Bizkaia	5 urte
Biodonostia	8 urte
Kronikgune	6 urte

Doikuntza hori formula hau erabiliz egin da:

$$\frac{\text{Bloke guztien kopurua} - \text{Parte-hartzaileen aurreko blokeak}}{\text{Bloke guztien kopurua}} \times \frac{\text{Antzinasuna}}{\sum \text{Antzinasunak}}$$

2. Ekintza baten balioespena zehazteko, erakunde bakoitzak ekintzan izan duen aurrerapenaren balioespena ekintzaren garrantziarekin biderkatu da.

Helburu espezifiko baten balioespena helburua osatzen duten ekintzek lortutako balioespenen batez besteko balioa da. Ardatzen balioespen kuantitatiboarekin batera diagrama erradial bat egin da. Diagrama hori helburua osatzen duen helburu partzial bakoitzaren balioespena da.

Ekintzen aurrerapen-maila zehazteko, honako kategorizazio hau ezarri da:

- **Hasi gabeak.** Inolako jarduerarik garatu ez duten, edo ekintzak hasi badira ere, eten egin diren edo aurrera egin ez duten ekintzak dira.
- **Hasiak.** Abian jarri diren eta ezarpenaren lehenengo faseetan dauden ekintzak dira (fase horretan ekintza egikaritzeko prozesuak definitu daitezke edo jarduerak unean-unean gara daitezke), baina prozedurarik, plangintzarik eta erregularitasunik ez dutenak.
- **Aurreratuak.** Jarduerak erregularitasunez egiten dira ekintza horietan, baina ez diete erantzuten plangintza bati eta/edo zehaztutako prozedurei. Hurbil daude erakundeak bere gain hartzetik, modu sistematikoan garatu ahal izateko.
- **Ezarriak.** Ekintza horietan, jarduerak zehaztutako eta ezarritako prozeduren eta/edo plangintzaren ondorio dira, eta erregularitasunez egikaritzen dituzte zerikusia duten erakundeen artean.

Kategoria bakoitzerako, balioespen-tarte bat ezarri da aurrerapen-maila kuantifikatu ahal izateko:

	EZARRIA (3,51 eta 5,00 arteko balioak)
	AURRERATUA (2,01 eta 3,50 arteko balioak)
	HASIA (0,26 eta 2,00 arteko balioak)
	HASI GABEA (0 eta 0,25 arteko balioak)

Tartea handiagoa da hasitako ekintzen kategoriarako, halako moldez non kontuan hartuko den denbora edo baliabide gehiago behar direla hasitako jarduera bat ondu eta finka dadin; hartara, ahalik eta gehien gutxituko da hasieran edo erdibidean gelditzeko arriskua, hots, ezarpenerako aurrerapena eragotzi edo moteltzekoa.

4. ERANSKINA: LANTALDEAK (LT)

- Afiliazioa eta ekoizpen zientifikoa LT.
- Azterlan klinikoak LT (operatiboa).
- Azterlan klinikoak LT (estrategikoa - 1. bilera: 2020ko urtarrila).
- CEIm-ren funtzionamendua hobetzeko LT.
- Proiektuak LT (Europakoak barne - Eurosasun).
- Hirugarrenak, ikuspegi integralarekin LT.
- Akordioak eta hitzarmenak LT.
- Berrikuntza-proiektuak LT (Innosasun, Baliosasun); Innosasun tarifak LT.
- Sareko laguntzen katalogoa LT.
- Zaintza teknologikoa LT.
- Fundanet LT.
- Osasun Sailaren deialdia LT.
- Giza baliabideak LT.
- CVN eta adierazleak LT.
- App eta IKT LT.
- Liburutegi Birtual Sanitarioa LT (biltegia barne).
- Medikuntza pertsonalizatua LT: Onkologia; Medikuntza birsortzailea eta terapia aurreratuak; Gaixotasun kardiometabolikoak azpi-LT.
- Gaixotasun arraroak LT.
- Neuro LT.
- Gailu medikoak LT.
- Zahartzea LT.
- Negozio-ereduak LT.
- Datuetarako sarbidea LT.
- ODBS LT.
- I+G+B araudia LT (latentea/geldirik).
- I+G inbertsioa kuantifikatzea/bistaratzea LT (amaitua).

5. ERANSKINA:

GLOSARIOA

AAA	Adimen artifiziala
ACT@SCALE	Arreta Integratuaren eta Telemonitorizazioaren alorrean jardunbide egokiak ezarri, garatu eta finkatzea ardatz dituen proiektua
ADLIFE	Integrated personalized care for patients with advanced chronic diseases to improve health and quality of life
BAE	Barne Araubidearen Erregelamendua
BAEE	Barneko erizain egoiliarra
BAME	Barneko mediku egoiliarra
BEP	Berrikuntzako Ekintza Plana
BERC	Basque Excellence Research Centre
BLU	Berrikuntzari Laguntzeko Unitateak
BTE	B taldeko estreptokokoa
CART	Terapia Zelularreko Unitatea
CVN	Curriculum vitae normalizatua
EB/EA	Errealitate Birtuala eta Errealitate Areagotua
ECRIN	Saiakuntza Klinikoetako Europako Sarea
EEG	Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EIKBE	Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa
EIP- AHA	European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing
EPB	Erosketa Publiko Berritzailea edo Berrikuntzako Erosketa Publikoa
ESSP	EAEko Sistema Sanitario Publikoa
GA	Gaixotasun Arraroak
GAP	Gradu amaierako proiektua
GGBB	Giza baliabideak
GISEP	Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren fundazioa
GNEAUP	Presioak eragindako ultzerak eta zauri kronikoak ikertzeko eta haiei buruzko aholkuak emateko talde nazional

H2020	Horizonte 2020
HRS4R	The Human Resources Strategy for Researchers
IBSZ	Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza
IEB	Ikerketarako Etika Batzordea
IETB	Ikerketen Eraitzen Transferentziarako Bulegoa
IKT	Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia
IKZ	Ikerkuntza Kooperatiborako Zentroa
INNOPAL	Innovative Personalised Care for Patients with Palliative Needs
ISI	Ikerketa Sanitarioko Institutua
ITEMAS	Teknologia Mediko eta Sanitarioen Berrikuntza Plataforma
ITHACA	Innovation in Health and Care for All
LPN	Lanerako Prozedura Normalizatua
LT	Lantaldea
MAFEIP	Monitoring and Assessment Framework for the EIP on Active and Healthy Ageing
MAPAC	Asistentzia-jarduna eta jardun klinikoa hobeto egokitzea
OBI	Osakidetza Business Intelligence
ODBS	Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sarea
PE	Plan estrategikoa
PKG	Praktika klinikoko gidaliburua
RECLIP	Saiakuntza Kliniko Pediatrikoetako Espainiako Sarea
RIS3	Especializazio Adimentsuaren Estrategia (ingelesezko siglengatik)
SCReN	Spanish Clinical Research Network
SKU	Saiakuntza Klinikoen Unitatea
TITTAN	Network for Technology, Innovation and Translation in Ageing
TRL	Technology Readiness Level
UPV/EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
ZT	Zaintza Teknologikoa
ZT/AL	Zaintza Teknologikoa eta Adimen Lehiakorra
ZTBES	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea
ZTBP	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020

